


ANTONIO ZAVALA, S. I.



**ZARAUTZ'KO ZALDUBI**  
**BERTSOLARIA**

*Juan Bautista Guealaga*



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

JB-451

10683

**ZARAUTZ'KO ZALDUBI**  
**BERTSOLARIA**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**62**

---

**COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.  
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 280 pezeta    Atzerrian: 380 pezeta  
Ongilleak: 500    "    Ale bakarra: 35    "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

**ZARAUTZ'KO ZALDUBI**  
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1967

*Depósito Legal S. S. 191/67*

**IZARRA - Peña y Goñi, 13  
SAN SEBASTIAN - 1967**

## A R K I B I D E A

Itzaurrea ... ..	9
Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria ... ..	11
1908: Bertso Berriak (Zarautzko Misioari) ...	19
1908: Bertso Berriak (Bederatziurren bati) ...	28
1913: Bertso Berriak (San Pelayoren Bizitzari)	34
1925: Bertso Berriak 1925'an Misiyo Santuari Jarriak ... ..	41
1935: Zarautzko Mixiyuari ... ..	48
1940: Bertso Berriyak Mixiyuari jarriyak ... ..	55
1945: Bertso Berriak Sentimentugarriak ... ..	62
1945: Bertso Berriak Zarautz'en 1945'garren urtian jarriak ... ..	69
1948: Bertso Berrietan Zorionak ... ..	76
1950: Bertso Berriak 1950'ko Mixiyo Santuai jarriak ... ..	82
Nere alabari kontestazioa komentura ... ..	89
Bertso Berriak Ama Birjiña Arantzazuko Bede- ratziurrenai ... ..	94
Bertso Berriak Gesalaga'tar Juan Bautistak ja- rriak (San Juan Bautistaren Bizitzari) ... ..	99
Bertso Berriak San Pedroren Bizitzari jarriak	106
Bertso Berriyak Sansonen Bizitzari jarriyak ...	113
Sor Koronazioneri Zorionak ... ..	120
Bertso Berriak (Zarautzko Erriari) ... ..	125
Bertso Berriak ( <i>Codorniz'</i> eko sozioai) ... ..	139
Bertso Berrietan Txakoliñaren Kondiziyuak ...	143

## ITZAUREA

*Liburu ontan, Zarautz'ko Zaldubi bertso-lariaren bertsoak dijoazkizu, irakurle. Izenez, Juan Bautista Gesalaga zeritzan.*

*Bertso biltzeari ekin nionean, laister asko egin nuan, zorionez, Juan Bautistaren ezaguera. 71 bat urte zuan orduan. Aiton medar-tente bat zan. Bañan andik laister il zan.*

*Berak jarritako bertso guziak, bildu ta kartolina biren tartean txukun asko josita zeuzkan. Liburu ontako bertsoak, andik kopiatuak ditugu, besterik gaztiazten ez bada.*

*Lenengo, zein urtetan jarriak diran bada-kigun bertso-paperak ipiñi ditugu, urterik urte; urrena, berriz, noiz jarriak diran ez dakigunak.*

*Bañan bereak ez-ezik, beste bertso zar as-*



ko ere jaso nion: *Amadeo de Saboya*'renak, *San Inaziorenak*, *Izuela*'ko *Artzaiaren gertaerak*... *Ikaragarrizko memori ona baitzuan.*

*Zaldubiren bizitza urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak, ez ordea guk kontatua, aren seme baten semea dan Jose Antonio Gesalaga*'k idatzia baizik. *Esaten dituanak, bere amona, aita ta osabarengandik. Juan Bautistaren emazte ta semeengandik alegia, bilduak ditu. Ain zuzen ta zoritxarrez, bere amona ori orain il berria du; urte ontako Ilbeltzaren 24'an eraman zuan erioak.*

*Milla esker eman bearrean gera, beraz, amasei urteko mutil prestu oni, egin digun mesede ederragatik.*

*Liburu azalean Juan Bautistaren arpegi-dibujua jarri degu. Ayalde*'k, *Antonio Valverde jaunak alegia, argazki batetik egiña da. Eskerrik asko.*

## ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA

Juan Bautista Gesalaga bertsolariak, "Zaldubi" zuan izengoitia. Izengoiti au etzan berari jarria, gurasoengandik zetorkiona baik. Juan Bautista onen aitaren amaren aitaren amak —aitaren aldeko amonaren amonaren amak—, Maria Antonia Zaldibia zuan izena; Zarautz'en 1702'garren urtean jaioa zan, eta etzan edozein izango, noski, ondorengoak, iru aldiz bigarren mallara jetxitako apelliduaz ezagutuak izateko.

Juan Bautistaren aitak, Juan Manuel zuan izena, ta Zarautz'koa zan; amak, berriz, Juana Joxepa Beobide zituan izen-apelliduak, eta Alkiza'koa zan.

Bi anai ziran: Juan Bautista eta Iñazio; au kanpoan il zan.

Zarautz'ko Trinidad Kalean, bostgarren numeruan, jaio zan, 1884'garren urteko

Abenduaren 19'an. Bere jaiotetxe ori kale-baserria zan, eta belardi ta baratzak urruti xamar zituau.

Txiki-txikitan Mollarri'ra joaten omen zan —an arrobia zegoan leenago ta alemanak barkuan eramaten zuten minerala— ango langilleai jatena eramatera, eta orregatik berekin bazkaltzen uzten omen zioten.

Gazte denboran *guarda* izan zan, tirorik botatzen etzuan eskopetarekin terrenuak zaituaz. Bein batean an ekarri omen zuan ijito bat lapurretan arrapatuta juezaren etxera.

Lendabiziko, Zarautz'ko Gurmendi baserriko alaba zan Hilaria Egaña'rekin ezkondu zan. Bañan, ezkondu ta urte betera, andrea il egin zitzaion.

Ondoren, Zarautz'en bizi zan bañan jaiotzez Urnieta'ko Barkaiztegi baserriko alaba zan Antonia Pagola'rekin ezkondu zan. Onek amabi seme-alaba eman zizkion: Manolo, *meningitis*'ekin gerran illa; Anjelita, jaio ta bereala illa; Kruz, ezkondu ta host semerekin bizi dana; Mariatxu, Zarautz'ko Santa Klara konbentuan monja dagoana; Pakito, pulmoniyarekin illa; Sebastiana, bere aizparekin monja dagoana; Rexu —Resurrección Alejandro—, *azidente* baten ondorenarekin il zana; Bitori, jaio ta bereala illa; Jose Anjel, ezkondu ta iru alaba, seme bat eta ama-

rekin bizi dana; Gloria, au ere monja dagoana; beste bat, jaió ta bereala illa, ta ize-nik ere izan etzuana; ta Imanol, Vallado-lid'en pralle dagoana.

Lenengo mundu guziko gerra denboran (1914-1919), bafore baten soziyo arrantzale izan zan; urte aietan negoziyo ederra zala diote. Gerra au bukatuta, Orio'n utzi bear izan zuten baforea, negoziyóa eskaxtu egin zalako.

Arrantzale ondoren, pelukero izan zan, txakur aundi batez illea moztuaz eta txakur txiki batez bizarra. Eta illea mozteko iñor etzuanean, ta bai gabeán ere —askotan oso berandu arte—, alpargata egiten jarduten zan.

Ortaz gañera, 3.000 pezetan erositako maasti batera ere joaten zan lanera. Maastia eros-teko terrenu batzuk saldu zituan, baita etxe-ko ganaduak ere.

Dirua eskatu eta "Villa María Asunción" erosi zuan, ta merke xamar erosi ere. Diruak bereala ordaindu zituan pelukeri, alpargata ta txakoliñaren diruarekin.

Bera bizi zan etxea pixka bat konpondu-rik, udaran jendea artzen asi zan, bitartean berak ganbaran gaizki xamar pasa bear ba-zuan ere. Erositako *villa* ortan etxea aundi-turik, jendea bizitzen jarri zuan. Auen etxe-

-errentakin bere bizi-modua pixka bat altxa egin zan.

Urrena, bere maastian etxe bat egin zuan txabola zegoan lekuan, eta "Etxe-egutera" jarri zion izena. Au egiteko, pelukeriya utzi egin zuan.

1929'garren urtean, Zarautz'ko mollatxo inguruan zeukan baratza batean, txalet bat egin zuan; "Chalet Mira-playa" jarri zion izena. Dana berak antolatua zan. Obra au zorretan artutako diruz egin zuan, eta bear zan garaian ordaintzen ez bazuan, maastiko Etxe-egutera jarri zioten truke; bañan bere garaian ordaindu zuan dirua, eta etzan ezer ere gertatu.

1930'garren urtean, oso gaizki egon zan, bañan sendatu egin zan. Sendatutakoan, sagasti bat erosi zuan maastiaren urre xamar; baita soro bat ere, bañan au oso urruti, erreka ondoan.

1932'garren urte aldera, Juan Bautista bizi zan aldameneko bi etxe beren jabeak saldu bearra izatea egokitu zan; bera bostgarrengean bizi zan, eta saltzekoak 7'garrena ta 9'garrena ziran. Ta Juan Bautistak erosi zituan 20.000 pezetagatik. Garai onetan, bere illoba txikia zan Juan Luis Tapia, gero bertsoetan ere azalduko dana, bere Amerike-

tako osabengandik erentzi aundi bat artua zan, eta onek lagundu zion diru aurreratuz.

Iru etxe oiek —bera ta erositako beste biak— bota ta beste aundi bat egiten ari zan. Au izan zan berak egindako obrak aundiena: lau bizitza-toki ezkerretan eta lau eskubitan; eta orain ganbaran beste iru daude. Etxe oni 3'garren numerua jarri zioten. Juan Bautistaren bi seme ezkonduak, Kruz eta Jose Anjel, bertan bizi dira. Etxe au azkar egin zan, iru illabetean, argiñak lanik etzutelako.

1934 urtean, estaziyo ondoan terrenu bat erosita, botatako iru etxeen ondakiñakin beste txiki bat egin zuan merke-merke, eta sobratutakuakin beste txiki-txiki bat sagastian. Kanpoko langillerik gabe, etxeokokin egin zituan biak.

Garai ontan Juan Bautista zan Zarautz'en kontribuziyo geiena pagatzen zutenetako bat. Orregatik Ayuntamentuko kontzejala egin zuten. Urte aietan etzan bera bezin gizon alairik; bañan naigabeak ere etorri egiten dira mundu ontan, eta Juan Bautistari ere eldu zitzaizkan:

Gerra etorri zanean, seme zarrena, Manolo, nazionalistekin joan zan. Gerora, beste seme bat ere, Kruz, gerrara joan zan; au beste aldekoekin. Estaziyo ondoko etxe txi-

kia, berriz, saldu bearra izan zuan. Andik pixka batera, Manolo *meningitis*'ekin il zan Oviedo'n. Lurperatu ondoren urte batzuk gerora ekarri zuten. Beste seme bat, Rexu, azidente bat izan eta andik aste bettera il zan. Beste bat, berriz, Pakito, 20 urtekoa, pulmoniyarekin il zan. Irurak urte berean. Pentsa zazute nolako mixeriya! Aita, nerbiyoetatik gaixotuta, lorik egiten etzuala gelditu zan; etxe egiteko gogoia, umorea ta bertsoak aituta bezela euki zitu-tuan denbora askoan.

Laister, bi alaba, Mariatxu ta Sebastiana, monja sartu ziran; gerora beste alaba bat ere, Gloria, konbentura joan zan 1952'garren urtean.

Ortarako, "Chalet Mira-playa" saldu egin zuan, eta ortik eskuratutako diruarekin alaben monja-dotea pagatu ez-ezik, 3'garren numeroko obrak ere pagatu ta zorrik gabe gelditu zan. Orduan lasaitu zan pixka bat, eta bertso jartzeari ekin zion berriro; umorea ere alaitu zitzaion. Santa Klara konbentuko iru alabak animatzen zuten.

Garai ontan, Juan Bautistak maastian bakarrik egiten zuan lana, txakoliña salduaz.

1957'garren urteko Urriaren lendabiziko igandean, urtero bezela, Antonia, Juan Bautistaren andrea, bere jaiotetxea zan Urnie-

ta'ko Barkaiztegi baserrira joan zan, angoak deituta festak pasatzera. Goiz erdian elizan zegoala, atake batek emanda eskubiko alderdia paralizatu zitzaion, eta Zarautz'a anbulantziyan ekarri zuten.

Il ortan bertan, erdi aldera, Juan Bautista ere gaxotu egin zan, eta gero ta gaizkiago, eta uste gabe il zan 1957'garren urteko Urriaren 28'an, 72 urterekin.

Bere emazte Antonia, berriz, pixkabanaka-pixkabanaka sendatu egin zan, eta, bastoiarekin bada ere, kalean ibiltzen zala jarri zan, baita ala segitu ere eriotza arte. Urte ontako Ilbeltzaren 24'an il da. Zeruan ikus dezagula.

Bere denbora guzian, Juan Bautistak izugarritzko zaletasuna izan zuan, bertso zarrak laneko garaian kantatzeko, lanari utzi gabe. Bat-batetan ere irtetzen omen zitzaizkion, tabernetan batez ere.

Onela zion, oraindik denbora asko ez dala, aiton zar batek: "Zarautz'ko Zaldubi? Nik ezagutu nuan ori, Bilbao'ko *Plaza Casilla*'n bertso kantatzen, bigote gorri-gorriyarekin!" Orain berrogei ta amar edo irurogei bat urteko kontua omen da ori.

Juan Bautista oso merke bizi zan, al zuan gutxiena gastatuaz bere bizitza guztian. Ba-



ñan bear-bearrezkoa omen zuan noizean bein amar durokoren bat, bertsoak papere-tan azaltzeko.

Berez oso alaia zan, naiz-ta gerra ondo-ren tristurak arkitu, gerora berriz alaitzeko.

Erritan egiten zuanean, ordea, etzan iñor ere Juan Bautista bañon eosgogorragorik. Ara: Zarautz'en bazan atso bat oso erritala-ria, ta bein batean asi ziran atsoa balkoitik eta Juan Bautista kaletik, eta, arraiopola!, atsoak sartu bearra izan omen zuan etxe barrenera...

Gaztetan, oso ona izan omen zan Zaldubi laiaketan.

Bere emazte Antoniagandik artu zuan santuen bizitzak jakiteko zaletasuna. Gero, santuen bizitzak bertsoan azaltzen zituan. Beretzako, santurik aundiena San Juan Bautista zan, eta bere egunean festa poli-tak egiten zituan maastian.

Olakoxea zan Zaldubi bertsolaria, nere aitona!

*Jose Antonio Gesalaga*  
(16 urte)

(1908)

## BERTSO BERRIAK

(ZARAUZKO MISIOARI)

Irakurleak geroago irakurriko duanez, 1950'garren urteko Misioari jarri zizkion bertsoetan onela dio Juan Bautistak azkenbigarren bertsoan:

Berrogei urte pasiak dira  
lenengo atera nitula,  
Aita Luis eta Andresek  
beren sermoiak zitula...

Juan Bautistak ateratako lenengo bertso-papera, onako au degu, beraz:

1/ Bertso berri batzuek  
nai nituzke jarri,  
Zarautzen izandu dan  
misiyuari;  
talentua eskatzen diyot  
Zeruko Aitari,  
alabantzak emateko  
jaun aundi oieri;  
kalteik ez iñori,  
mesedia ugari,  
predikatzen guri  
nola diran ari,  
parte eman biaiot  
euskaldunari.

2/ Milla beatzi eun da  
zortzigarren urtian,  
misiyuak izan dira  
beatziurren batian;  
Azaruan zazpitik  
amabost artian,  
jendia ibilli gera  
eleiza betian;  
etsaian katian  
geunden bitartian,  
diabru tartian,  
animen kaltian,  
gogor saiatu dira  
libratu artian.

3/ Fraille Andres ta Luis  
predikatzen beñepin,  
gizon abillak zirala  
len e banekin;  
zori onian etorri  
zaizkigu alkarrekin,  
gu premiyan geundela  
dutenian jakin;  
gogor digu ekin  
kariño onakin,  
gu pekatuakin  
asko geunden zikin...  
obeko degu bizi  
Jangoikuakin.

4/ Utsegiten badegu  
mandamenturikan,  
Jainkuak jarritako  
legekorikan,  
gero ezpadeu egiten  
konfesiyorikan,  
ez dagola guretzat  
salbaziyorikan;  
maldiziyorikan  
eo okasiyorikan,  
murmuraziyorikan  
ta mengaziyorikan  
utzi, len bada, orlako  
jeniyorikan.

5/ Ikasi degu nola  
egin esamiña,  
memorira ekarri  
lengo utsegiña;  
liburu on bat dala  
gauza atsegiña,  
irakurri lenbizi  
Jainkuan dotriña;  
dolore samiña  
artu alegiña,  
damutasun fiña  
pekatu egiña...  
ai onela prestatuak  
juango bagiña!

6/ Esan digute sarri  
ondo konfesatzeko,  
oker guztiyak zuzen  
akusatzeko;  
gauza biarra dala  
animarentzako,  
aundiyak izanagatik  
bate ez lotsatzeko,  
klaro aitortzeko  
garbiro jartzeko,  
propositua artzeko  
ez geio erortzeko...  
onela prestatu biar deu  
komurgatzeko.

7/ Guztiok pasa biar  
degu eriyotza,  
akordatziak ebaten  
dit nei biyotza;  
betiko nai genduke  
emengo bizitza,  
ez degu logratuko  
alperrik gabilta...  
Jangoikuaren itza  
mudatutzen gaitza,  
oain degun korputza  
ain da gauza utsa,  
biurtuko zaiguna  
lur edo autsa.

8/ Jetxita ibilli zan  
Jesus zeruetatik,  
padezitu zuan ark  
emen gogotik,  
gure animak libratzeko  
etsaian mendetik,  
ogei ta amairu urtian  
sufritutzen beti...  
gizona dan aldetik  
eskatzen barrendik  
Aita Eternuagandik  
laguntza oraindik...  
azkenian gurutzian  
il zan gugatik!

9/ Esan digute nola  
dauden infernuan,  
erre ta kiskaldutzen  
itxasozko suan;  
Luzifer dago errege  
lenengo graduan,  
animak zer pena dauken  
beti aren onduan!  
lenago munduan  
bizitza galduan  
beti pekatuan,  
gero penatuan...  
penitentzi egin zagun  
ez gaitezen juan!

10/ Projimuakin arren  
alkar artutzeko,  
gaizki egiñagatik  
barkatutzeko;  
Pater-nosterra sarri  
errezatutzeko,  
ark zer esan nai duan  
konsideratzeko;  
ez aserratzeko,  
beti amatzeko,  
gaizkillientzako  
ez gorrotoik artzeko...  
gero Jainkuak ikual (sic)  
gu ordaintzeko.

11/ Badatorkigu egun  
azken juiziokua,  
danok Josefetara  
juatekua;  
aingeruak joko digute  
tronpa musikua,  
arituko deguna  
mundu guzikuak;  
gure Jangoikuak  
sententziatuak,  
eskubira justuak,  
ezkerrera gaiztuak...  
zer pena eramango dun  
anima galduak!

12/ Zuzen baldin gabiltza  
zeruko bidian,  
akordatuko gera  
egunen batian;  
mundu onetan ilda  
bestera juatian,  
San Pedrok lagunduko du  
zeruko atian;  
aingeru tartian,  
Jesus bitartian,  
gero errematian  
gau ta egun betian  
gozatuko gerade  
eternidadian!



13/ Gogor itzegin dute  
gurasuentzako,  
arren umiak ondo  
edukatzeko,  
txikitatik dotriña  
erakutsitzeko,  
gazte diraden arte  
lanian jartzeko;  
gero etsitzeko  
ondo segitzeko  
umil bizitzeko  
Jauna serbitzeko  
ontan saiatu biar da  
zeruan sartzeko.

14/ Enkargatu gaituzte  
gu, gazte geranak,  
arren, egin ditzagula  
gurasuen esanak;  
giyatuko gaitula  
aitak eta amak,  
aiek esan bezela  
egiteko lanak,  
agintzen diranak,  
utzi eztiranak,  
txorakeri danak,  
baltsio ta bromak...  
orduan izango gera  
oso ume onak!

15/ Jendiak asistitu du  
albo-erritatikan,  
dudarikan ez dago,  
apartetikan:  
nola Aizarnazabal  
da Zumaiatikan,  
gogor saiatu dira  
Getariyatikan,  
Oriyo ta Aiatikan  
jendia gogotikan,  
urruti egonagatikan  
etzan inportikan  
oien sermoi ederrak  
aditziagatikan!

16/ Graziyak, misionero  
Aita espiritualala,  
Jainkuak urte askuan  
konserba ditzala;  
ain dirade gizon  
prestu ta leialak,  
gu salbatziagatik  
ein dute egiñala;  
oiek esan bezela  
segi dezagula,  
zeruan jornala  
artuko deguala...  
Jaunaren bendiziyuak  
indar dezala! (1)

---

(1) Bertso-papera, "Zarauz-en Quintanilla-en Mol-  
detegian".

## BERTSO BERRIAK

### JUAN BAUTISTA GESALAGAK JARRIAK

(BEDERATZIURREN BATI)

- 1/ Milla bederatzieun kunplitu eta  
au zortzigarren urtian,  
predikadore bat Zarautzen izan da  
bederatziurren batian;  
nonbait bazekin gu geundela  
asko etsaiaren katian,  
gau eta egun saiatua da  
danok libratu artian.

2/ Apirillaren iruan Aita Laskibar  
predikatzen zaigu asi,  
kasikan gizon abillagorik  
ez degu asko ikusi;  
orren alabantzan itz batzuek nik  
nai ditut adierazi,  
ondo esplikatzeke talentua  
eskatzen diot Jesusi.

3/ Doloretako Ama Birjiñen  
nobena zeguenian,  
esplikatutzen asi zaigu  
guztiz naitasun onian;  
nere kristauak, bizi biar degu  
Jaungoikoaren legian,  
gero zeruan gozatutzeke  
danok eternidadian.

4/ Baldin gordetzen ezpaditugu  
Jaungoikoan mandamentuak,  
gure gañian izango dirala  
izugarritzko pekatuak;  
baldin izan nai ezpaditugu  
animak deskalabratuak,  
obe izango degula oraifi  
ateratzea kontuak.

5/ Otsegin digu nolakoa dan  
Jaungoikoaren grazia,  
bataio santutik daukagula  
guztiok irabazia;  
bañan geienak egongo giñan  
naikoa galtzen asia,  
ontaz aurrera naiago det nik  
eitia penitentzia.

6/ Esplikatu du noletan egin  
biar degun esamiña,  
memoriyara ekarritzeko  
mandamentu utsegiña;  
artu dezagun damutasuna,  
dolore propositu fiña,  
Jaungoikoaren kontrara leno  
pekatu erraz egiña.

7/ Txit debozio aundiarekin  
asko gera konfesatu,  
len egindako pekatu danak  
ondo ditugu akusatu;  
oraindanioko geren denbora  
zer nola degun pasatu,  
berriz jaioko banitzake're  
ez nuke ingo pekatu!

- 8/ Gero komurgatu egin gera  
Doloretako egunian,  
anima garbi, biotza pozez,  
txit debozio onian;  
aundi xamarra izanagatik  
parroki dana betian,  
gutxiyeneke gezurrik gabe  
zazpireun lagun bazian.
- 9/ Jaungoikoaren Semia, Jesus,  
zeruetatik jetxi zan,  
eternidadeko gure animak  
Luziferrek artu ez ditzan;  
ogei eta amairu urtian  
trabajuakin bizi zan,  
ta azkenian gu salbatziatik  
Jesus gurutzian il zan.
- 10/ Gu salbatziarengatik egin  
dizkigu egiñalak,  
orrek nai luke gu sartutzia  
zeruko glorira danak;  
ain ziraden egi klaruak  
jaun aundi arren esanak,  
biyotz biguna eztu izango  
or konbertitu ez danak.

- 11/ Esan digu zein penagarriya  
ta tristia dan infernua,  
pekatariyak kastigatzeko  
Jaungoikoak eindakua;  
gau eta egun tormentu-pian,  
ez da paraje gozua,  
eternidade guztiyan egon  
biar dan kalabozua
- 12/ Enkargatu gaitu gazte guziyok  
poliki ibillitzeko,  
pekaturako bidetik arren  
al bada apartatzeko;  
Birjiña Ama Doloretakuari  
al dana erregutzeko,  
eternidade guztiyan gero  
bere ondoan gozatzeko.
- 13/ Eta gañera enkargatu ditu  
familiko gurasuak,  
al dan ondona edukatzeko  
beren ume gaizuak;  
gazte diran arte erakutsi  
zerura dauden pausuak,  
au onela desiatzen du  
Jaungoiko amorosuak.

14/ Ezin nezake nik alabatu  
ori biar dan guziya,  
makiñatxo bat meritu badu  
Zarautzen irabaziya;  
nere partetik desiatzen diyot  
osasuna ta graziya,  
Jaun Zerukuak eman deiola  
eun bat urteko biziya.

15/ Goguangarriyak izandu dira  
orren esplikaziyuak,  
pekatuari utzi diyogu ta  
in ditzagun oraziyuak;  
al dan ondoena kunplitu herriz  
geren obligaziyuak,  
urte askoan indar dezala  
Jaunaren bendiziyuak. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Imp. Vda. Lerchundi.-Zarauz."



(1913)

## BERTSO BERRIYAK

(SAN PELAYOREN BIZITZARI)

Zarauztarrak, San Pelayo dute patroitzat. Onen festa Garagarrillaren 26'an da. Ermita aundi-eder bat ere bada Zarautz'en santu onen izenean, Donosti alderako ertee-ran, Iñurritza esaten zaion ballaran.

1/ Milla beatzi eun kunplitu eta  
amairugarren urtian,  
notizi bat zabaldu biar det  
euskaldunaren tartian;  
Zeruko Aita, lagun zaidazu  
denbora pixka batian,  
paper onetan San Pelayoren  
bizitza jarri artian.

2/ San Pelayon bizitza txikitatik  
nai nuke adierazi,  
Galiziyako erri batian  
au zan jaio eta azi;  
aita ta ama aberatsakin  
amar urtian zan bizi,  
osaban ordez presionero  
gero jarri zan lenbizi.

3/ Denbora artan gerra gogor bat  
sortu zan moruarekin,  
batalla aundiyak egiten  
zituztena elkarrekin;  
bitorioso atera ziran  
moruak españolakin,  
Pelayon osaba presionero  
atxitu zuten beñepin.

4/ Pelayon osaba obispua  
presionero artuta,  
urte ta erdiyan iduki zuten  
kate gogorrez lotuta;  
gero Abderramen erregiari  
zerbait suplikatuta,  
libratu zan, illoba Pelayo  
ordezko preso sartuta.

5/ Amar urteko aingeru gaztia  
kartzela illun batian  
ipiñi dute, beso ta oñak  
seguratuta katian;  
alaxen ere beti egon zan  
Jaunaren fede fuertian,  
oraziyo asko egiñaz  
kartzelan iru urtian.

6/ Iru urte pasa ta eraman dute  
Abderramenen aurrera,  
ark esan ziyon: "Jarri zaite  
guk dadukagun legera;  
emango dizut nere erreñuan  
zeuk nai dezun aukera,  
munduko jolas lasaikeritan  
ederki biziko gera."

7/ Erantzun ziyon: "Orain beorrek  
ofrezitzen dizkiranak,  
iltzen naizenian alper-alperrik  
izango ditut dianak;  
argatik oñazpiratu bitez  
juduen lege txaldanak,  
goratuak izan ditezela  
gure Jangoikuarenak!"

8/ Alaxen ere Abderramen  
batere etzan aserratu,  
pentsatu zuan oraindikan  
egingo zala mudatu;  
arpegiyan igortzita esan ziyon:  
“Jangoikua zazu ukatu,  
eta gure idolo faltsua  
obe dezu aduratu.”

9/ Modu onetan asi zitzaion  
berriz itzeiten Pelayo:  
“Aldegin zazu, txakur gaiztua,  
eta ez etorri geyo!  
pentsatzen al dek dudan nagola  
artzeko iri amoriyo?  
azkenengo arnasa arte  
izango nauk kontrariyo!”

10/ Disimulatu zuan erregiak  
egin ziyon desairia,  
lisoñtxero bat bialdutzeko  
atera zuan iria;  
pensatu bezela bialdu ziyon  
iztun parerik gabia,  
baña alperrik, etzan mudatu  
San Pelayoren legia.

11/ Pelayok ziyon alperrik ala  
ez molestatutzeko:  
“Nik ez dadukat borondaterik  
bate erregientzako;  
nere anima eskañiya nago  
gure Jangoikuentzako,  
eta bildurrik eztaukat bate  
nai badit biziya kentzeko!”

12/ Aguro eman ziyon lisoñtxeruak  
erregiai notizi berriya,  
Pelayo zeguala aren kontrara  
gogor egiteko jarriya;  
orduan erregiak artu zuan  
kolera izugarriya,  
eta esan zuan: “Ikusiko du  
laister istillu gorriya!”

13/ Córdoba'ko errege gaizto  
Abderramen irugarrenak  
Pelayon kontra eman zituan  
tamaña ontako ordenak:  
tenazakin elduta gora ta bera  
ibiltzeko horreruenak,  
gero ebakita erriyora bota  
egiteko puska dienak.

14/ Agindu bezela asi zitzaizkan  
borrero gaiztuak elduta,  
alaxen ere Pelayo firme  
ez batere bildurtuta;  
lendabiziko matxetiakin  
beso ta oñak kenduta,  
azkenian erriyora bota  
zuten lepua moztuta.

15/ Martiri abek pasa zituan  
bi ordu eta erdiyan,  
beatzi eun da oi ta bost urte  
Garagarrillen oi ta seyan,  
Jesus munduan izan zanetik  
amargarren gizaldiyan;  
orain berakin gozatzen dago  
beti zeruko gloriyan.

16/ Santu onen bizitza munduan  
onelaxen bukatu zan,  
baña orduan ere kristau  
katolikuak e izan;  
gorputz santua jaso zuten  
puskatu gabekuen gisan,  
baita ondo sepultatu're  
Santa Inesko elizan.

17/ San Pelayo eguna zelebratzen da  
Garagarrillen oi ta seyan,  
festa aundiyak egiten dira  
urtero Zarautzko erriyan;  
erbestetikan persona asko  
izaten da erromeriyen,  
egun bat ona pasatziagatik  
San Pelayon alegriyan.

18/ Paper onetan orra epiñi  
gertatutako egiyak,  
ondo konsideratu ezkeron  
ain dira arrigarriyak,  
gusto duanak ikasitzeko  
euskeraz bertso berriyak,  
Gesalaga'tar Juan Bautistak  
San Pelayori jarriyak. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Imp. de Quintanilla.-Zarauz".

## BERTSO BERRIAK

### 1925'AN MISIYO SANTUARI JARRIAK

- 1/ Bertso berriyak ipiñitzeko artu det pentsamentua, alabatzia disponitu det Zarauzko Misio Santua; biar bezela publikatzeko gertatu dan asuntua, Zeruko Aita, argi zadazu nere entendimentua.
  
- 2/ Misionistak izan ditugu aurten Zarauzko erriyan, ezagaturik gu geundela asko oriyen premiyan; predikatutzen asi zaizkigu guztiz maitasun aundiyan, amaika anima sartutzen dute oiek zeruko gloriyan.



3/ Martxuaren ogei ta zortziyan  
predikatzen ziran asi,  
kurpituan belauniko  
jartzen ziraden lenbizi;  
biyotzez eskari eder bana  
eiten ziyoten Jesusi,  
nola salbatu biar degun ondo  
digute adierazi.

4/ Aita Alkorta zan bat eta,  
Aita Bengoa bestia,  
askok desio gendun Zarautzen  
predikatzen ikustia;  
oiek nai zuten birtutiakin  
gure animak jaztia,  
gau eta egun kurpitotikan  
saiatu gabe eztia.

5/ Jaungoikuaren mandamentuak  
saia gaitian guardatzen,  
lendabiziko gure Jainkua  
ondratu eta maitatzen;  
ta projimua gure burua  
bezela estimatutzen,  
nai ezpadegu betiko egon  
infernuetan erretzen.

6/ Otsegin dute jai-eguna  
ondo santifikatzeko,  
pekaturako bidetik arren  
guztiyok apartatzeko;  
goizian meza osua ikusita  
al bada komurgatzeko,  
arratsaldian bezperak entzunda  
sasoiz erretiratzeko.

7/ Gogor in diye seme-alabai  
maitatzeko gurasuak:  
“Gero izan nai ezpadezute  
zeuek despreziosuak;  
errespetua guardatu eta  
laguntzia prezisua,  
zuengatikan erruki dedin  
Jaungoiko amoriosua.”

8/ Eta gañera enkargatu'itu  
neska ta mutik gaztiak,  
askok egiten dituztela  
txit ibillera tristiak;  
nola teatro, igual zine,  
gañera dantza nastiak,  
oiek dirade Luzifergana  
juateko albistiak.

- 9/ Nere kristauak, projimuakin  
 guztiyok ondo elkartu,  
 gaizkillerikan aundiyenari  
 biar diyogu barkatu;  
 Jesus maitiak gurutzetikan  
 alaxen zuan eskatu,  
 edo bestela infernuetan  
 biarko degu pagatu.
- 10/ Otsegin dute kondenatuak  
 infernuan nola dian,  
 erre ta kiskaltzen an daude  
 Luzifer gaiztuen mendian;  
 Jesusen arpegiya ikusi gabe  
 zenbat penatutzen dian,  
 alaxen ere an egon biar  
 dute eternidadian.
- 11/ Purgatorioko anima gaxuak  
 gau eta egun penatzen,  
 berak ezertxo ezin egin da  
 guri laguntza eskatzen;  
 gerta liteken gauza da eta  
 geu baldin bagera sartzen,  
 saia gaitian arren guztiyok  
 orain ordanez libratzen. (1)

---

(1) Puntu ontako *ordanez* itza, moldiztegiaren utsegiñen bat dala dudarik ezta; bañan ezin igerri izan diogu, *ordañez*, *or danez* ala zer bear duan. Orregatik, paperak dion bezelaxe, *ordanez* utzi degu.

12/ Ikusi degu Aita Bengoa  
predikadore abilla,  
memori ona ta boza klarua,  
eztago oso debilla;  
aurten Zarautzen izan da  
anima galduen billa,  
desio diyot urte askuan  
ortan saiatu dedilla.

13/ Aita Alkorta predikatutzen  
ain da iztun bikaña,  
gutxiyeneko baliyo ditu  
koskor xamar birek aña;  
mundu guztiyan zabaltzen dabil  
Jesukristoren dotriña,  
naiago nuke neria balitz  
orrek dadukan mingaña.

14/ Jaungoikuaren graziyan danok  
jarri gaituzte ederki,  
orain bizitza on bat eramaten  
saiatu biar degu beti;  
oien esanak il arteraño  
arren goguan eduki,  
edo bestela gure animak  
ez ditugu asko erruki.

15/ Aita Andresek gauetan beti  
erderaz predikatu du,  
abillagorik orain eztala  
makiña batek esan du;  
pekatariyak konbertitutzen  
askori diye lagundu,  
orren mingaÑak anima asko  
zerura bialdutzen du.

16/ Ain ziraden probetxugarriyak  
jaun aundi oien esanak,  
neroni ere damututzen zait  
pekatariya izana;  
zar eta gazte danok ein degu  
konfesiyo eder bana,  
biotz biguna ezta izango  
or konbertitu eztana.

17/ Azken agurra Aita Andresek  
euskeraz digu itzegin:  
“Arren guztiyok biar dezute  
okasiyotik aldegin!”;  
oien esanak mundu onetan  
bizitza guztiyan egin,  
eternidadian gure anima  
zeruan gozatu dedin.

18/ Adios orain, misionero  
Aita relijiosuak,  
urte askuan lagun deiela  
Jaungoiko amoriosuak;  
barkatu emen jarri ditudan  
nere utsegite osuak,  
Gelasaga'tar Juan Bautistak  
ipiñi ditu bertsuak. (2)

---

(2) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

(1935)

## ZARAUZKO MIXIYUARI

- 1/ Milla beatzi eun kunplitu eta  
ogei ta amabostgarrena,  
mixonistak izandu dira  
aurten Zarauztarrena;  
Jesus maitia, argi zaidazu  
memoriya ta barrena,  
alabatzeko jaun aundi oiek  
iñola al dan azkarrena.
  
- 2/ Bi Aita prantziskotarrak  
oso umil eta prestu,  
gure animak zeruratzera  
etorri zaizkigu justu;  
jakin dute nola pekatuz  
asko giñan aberastu,  
orrelakuak, mudatze'ez bada,  
zerurik izango eztu.

3/ Aita Mitxelena kurpitudikan  
predikatutzen aurrena,  
umil da prestu Aita Rekondo  
asi zaigu urrena;  
gau eta egun aditu degu  
makiñatxo bat ordena,  
pekatariyen bizitza tristiak  
ematen ziyoten pena.

4/ Jai-eguna nola pasatu.  
ederki dute otsegin,  
meza ikusi eta konfesatu  
komuniyuakin berdin;  
premiyarikan ezpaldin bada  
arren lanikan ez egin,  
edo bestela infernuetan  
ezta izango atsegin.

5/ Enkargatu dituzte gaztiak  
arren izateko kontua,  
zine txarretan edo teatro,  
gañera dantza lotua;  
eta gabian iñoiz ere ez  
erretira berandua,  
baldin izan nai ez badezute  
betiko anima galdua.



6/ Ta, gizaseme biraulariya,  
zure bizitza tristia!,  
zuk nai zenduke Jesus maitia  
berriz gurutzian jostia;  
obeko dezu griña txar oiek  
al dan lenena uztia,  
edo bestela merezi luke  
bere mingaña moztia.

7/ Gogor egin diye gurasuai  
umiak ondo azteko,  
txikitatikan Jesukristoren  
fedia erakusteko;  
pekaturako griña gaiztuak  
alde batera uzteko,  
ontan saiatu arren guztiok  
zeruba irabazteko.

8/ Gaizkilleari barkatutzia  
degu oso prezisua,  
kurpitutikan amaika aldiz  
artu degu abisua;  
gorroto txarra idukitzia  
ain da gauza pisua,  
muda gaitezen eztedin galdu  
gure anima gaixua.

9/ Konfesatzeko aurretik artu  
genduan damutasuna,  
berriz geiago ez erortzeko  
propositu fintasuna;  
orretatikan ekarri degu  
animaren osasuna,  
mundu guztiyan zabaldu bedi  
orrelako ontasuna.

10/ Jesus maitia munduratu zan  
guretzaz errukituta,  
ikusirikan gure animak  
noletan zeuden galduta;  
Galbariyora eraman zuten  
gurutze astun bat artuta,  
da azkenian bertan josi  
beso biyak zabaldua.

11/ Pekatua da gauza itxusi,  
gañera nazkagarriya,  
anima ezik korputzarentzat  
askotan kaltegarriya;  
galdutzen ditu osasuna ta  
etxia eta erriya,  
orrelakuak infernu beltza  
daduka irabaziya.

- 12/ Infernu ori nolakua dan  
askotan dute otsegin,  
suzko labe bat oso illuna  
anima penatu dedin;  
gau eta egun tormentu-pian,  
urtian junda're berdin,  
pekatariyak an sartutzian  
eztu izango atsegin.
- 13/ Gure Jainkuak egiña dauka  
justuarentzat zeruba,  
azken sari (y) au emango digu  
baña ezta seguruba;  
zein ederra dan esplikatzeke  
ez daukat kapaz buruba,  
onak bagera gozatutzeke  
antxen daukagu moruba.
- 14/ Igaz Erroman, aurten erriyan,  
izan degu jubiliyua,  
Aita Santuak nonbait orrela  
zedukan oponiyua;  
Mixio-egunetan irabazteke  
genduan proportziyua,  
orretan asko saiatu zaigu  
erriko bikariyua.

15/ Jendiak gogor asestitu du  
goiz eta arratsaldian,  
igualmente saiatu dira  
erderazkuak gabian;  
San Prantziskotar bi Aita oiek  
izlari onak baitian,  
aditzalliak iduki'ituzte  
eleiz guziya betian.

16/ Azken agurran kurpitudikan  
saiatu da Aita Rekondo,  
asi bezela azkeneraño  
arrek itzegin du ondo;  
biyotz gogorrik Zarauztarretan  
ez al da iñor egongo,  
orren esanik ez litzaiguke  
aztu biar e egundo.

17/ Utsegitiak arren barkatu,  
ein zazute faboria,  
oso errez-ta deskuidatutzen  
gizon eskola-gabia;  
zeñek agertuak diraden  
esan biar det ordia:  
Gesalaga'tar Juan Bautistak  
moldatutakuak dia.

18/ San Prantziskoren seme leialak,  
agur beste bat artian,  
zuen esanak ondo kunplitzen  
danok saiatu gaitian;  
azken arnasa emen emanda  
beste mundura jutian,  
Aita San Pedrok lagun digula  
zeruetako atian. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Elustondo.-Zarauz".

(1940)

**BERTSO BERRIYAK**

**MIXIYUARI JARRIYAK**

- 1/ Jaun zerukuak ematen badit  
kantak jartzeko graziya,  
aren laguntzaz kunplituko det  
desio dedan guziya;  
relijiyoko gauzetan geunden  
asko zabartzen asiya,  
begiyetako bista ona ta  
alkar ezin ikusiya.
  
- 2/ Milla beatzi eun kunplitu eta  
berrogeigarren urtian,  
mixonistak izan ditugu  
Zarauztarren tartian;  
pekatuakin loturik geunden  
diabruaren kation,  
gau eta egun saiatu dira  
danok libratu artian.

3/ Aita Zabala'i suertatu zaio  
aurrena itzegitia,  
ondo dakite nola urratu  
diabruaren katia;  
aguro asko agertu digu  
guztizko borondatia,  
biyotz-biyotzez eskeñi digu  
zorion eta pakia.

4/ Bigarren, Aita Larrañaga,  
txit umiltasun aundiyan,  
predikatutzen abitu zaigu  
oso euskera garbiyan;  
entendimentuz listua dago,  
abilla jakinduriyan,  
igarri digu asko geundela  
orrelakuen premiyan.

5/ Arreta aundiz bete ditzagun  
Jaungoikuan aginduak,  
batzuek ala uste arren  
eztaude oraindik kenduak;  
bat bakarrikan utsegin gabe  
kuidadoz egin moduak,  
edo bestela galduko gaitu  
orain daukagun munduak.

6/ Sei egunian lana eginda  
zazpigarrena igandia,  
mundu au egin zuanian  
Jainkuak jarriyak dia;  
igande ortan bera ondratu,  
bestiak alperrik dia,  
geren buruai galde diogun:  
“Ondo kunplitzen al dia?”

7/ Gazte jendia enkargatu du  
kuidadoz ibilitzeko,  
dantza-lotu ta zine txarretatik  
al bada apartatzeko;  
pekaturako arriskueta  
egundafio ez jartzeko,  
arratsaldian illuntzerako  
sasoiz erretiratzeko.

8/ Seme-alabak ondo azitzen  
saia gaitezen gurasuak,  
arreta aundiz begiratuaz  
egite'ituzten pausuak;  
txiki diran arte erakutsi  
fede santuko kasuak,  
gugatik zenbat sufritu zuan  
Jesus amoriosuak.



9/ Kuidado aundiya izan biar degu  
guztiyok boskarrenguan,  
aitona batek esan omen du  
kenduta ote daguan;  
alkarrengana gorroto biziz  
jendia nola zeguan,  
edo bestela etzan izango  
oinbeste gerra munduan.

10/ Seigarrenguan lotsaz bada're  
nua zerbait esatera,  
emen aña pekatu eiten danik  
besterikan bai ote'ra?  
aragiyaren griña gaiztuak  
utzirik alde batera,  
arren, pausorik etzazu eman  
zeure buruan kaltera.

11/ Zazpigarrena, besteren gauzik  
ez atxitu edo ostu,  
bakoitzari beria ematen  
saiatu biar da justu;  
arrapatzeko desiorikan  
eduki biar eztu,  
edo bestela orrelakuak  
zerurik izango eztu.

12/ Konfetsatzeko nola prestatu  
ederki dute otsegin,  
lendabiziko kontzientziya  
aztertu edo esamin;  
doloria ta propositu fiña  
berriz erori ez dedin,  
oben guztiya aitortutzeko  
eskusarikan ez egin.

13/ Jaio giñan da il biar degu,  
dударik ezta orretan,  
ori sinisten ez duanikan  
ez dago mundu onetan;  
gogoratzian gure biotza  
gelditutzen da penetan,  
ona izana ez deu damuko  
azkenengo egunetan.

14/ Barkaziyo eske kurpitudikan  
ujuka jardunak dira,  
orduantxen bai egin ziguna  
gure biotzak mugira;  
sentimentuzko negar-malkuak  
zetozkigula begira,  
eliz-pe artan bat baño geio  
negarrez egonak dira.

15/ Bikaio jauna barkaziyo eske  
zabaldurikan besuak,  
iñor ofenditu baldin bazuen  
aren itz edo pausuak;  
berak barkatzen ziyela danai  
eman zizkaten erasuak,  
guk ere baietz erantzun giñon  
mingañez erri osuak.

16/ Alkarren gorrotoz geunden  
eztakit zenbat urtian,  
oien esanak jarri gaituzte  
uniyo eder batian;  
bata bestiai lagun egiñaz  
aurrera bizi gaitian,  
berriz olakoik ez bedi sortu  
sekula gure artian.

17/ Eta gabian Aita Egiluz'ek  
erderaz digu itzegin,  
modu orretan jende guziya  
ondo konformatu dedin;  
oien esanak il arteraño  
zuzen biar dira egin,  
gure anima gero zeruan  
betiko gozatu dedin.

18/ Azken agurra Aita Larrañaga'k  
oso ederki egin du,  
ai, guztiyok oien esanak  
zuzen egingo bagindu!  
Jesus maitia, azken orduan  
zeru aldera lagundu,  
Gesalaga'tar Juan Bautistak  
orrela desiatzen du. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

(1945)

## BERTSO BERRIYAK

### SENTIMENTUGARRIYAK

Bertso auek bere bizitzari buruz jarri zituan Juan Bautistak. Irakurleak ondo egingo du, emen esaten diranak, eta billobak itzaurrean esan dituanak, bat nola datozen ikustea.

13'garren bertsoan dionez, 60 urte zituan Juan Bautistak, bertso auek jartzerakoan. Beraz, 1884'garren urteko Abenduaren 19'an jaioa baitzan, bertso auek 1945'garrenean jarriak izango dira.

1/ Bertso berri batzuek  
al banitza jarri,  
oraiñdañoko nere  
bizi-moduari;  
laguntza eskatzen diyot  
Jesusen Amari,  
aditzera emateko  
euskaldun danari.

2/ Milla zortzi eun da  
larogei ta lauan,  
Zarautzen jaio nitzan  
estadu bajuan;  
guraso zintzo eta  
prestuak nituan,  
baita edukatu're  
relijio santuan.

3/ Nekazaritza zuben  
aitak ofiziyua,  
nik ere ekarri nuan  
ortan afiziyua;  
gurasuak ematen  
ziren leziyua,  
saiatu nitzan egiten  
obligaziyua.

- 4/ Gurasuakin nitzan  
gaztetan egondu,  
nekazaritzan berriz  
berari lagundu;  
aita il eta gero  
nitzan ni ezkondu,  
bigarren urterako  
baita alargundu.
- 5/ Gazterik gelditu nitzan  
alargun tristia,  
idia artu nuan  
labrantza uztia,  
bizi-modu berriyan  
aurrera astia,  
ondoren artu nuben  
bigarren emazia.
- 6/ Onekin badamaizkit  
makiña bat urte,  
geroztik egin degu  
biyok lana fuerte;  
amabi umen guraso  
ezautzen gaituzte  
oietatikan iru  
il ziraden laiste.

7/ Bederatzi aurrekin  
zillarrezko boda,  
egitia desio  
eztuana nor da?  
gure erretratua  
ateria or da,  
garbi konserbatzia  
urte askuan on da.

8/ Ondorenian laister  
gendun desgraziya,  
nonbait ala zeguan  
Jaunaren graziya;  
familiya gendukan  
bastante aziya,  
urte betian iruk  
utzi zuten biziya.

9/ Iru seme aundi ilda  
ai ura tristura!  
gure biotz gaixua  
geio ezin piztu'ra;  
luto beltzez jaztia  
nola dan oitura,  
negarrez pasa gendun  
danok urte ura.



10/ Luto beltzez jantzita  
danok geundela,  
pensaturik mundu au  
txit laburra dala,  
anima salbatzia  
lenbizi al bada,  
munduko gustuak  
biar dira laga.

11/ Bi alaba zarrenak  
ein dute promesa,  
konbentu itxi bateko  
daukate amesa;  
berai emango diyet  
biar dan interesa,  
gurasoakgatikan  
erregutu beza.

12/ Etxian gelditzen dira  
alaba ta iru seme,  
onela baldin baguaz  
laister gera gabe;  
Jaungoikua nola dan  
guztiyaren jabe,  
bere borondatia  
kunplitzia obe.

13/ Irurogei urte  
dauzkat bizkarrian,  
baña oraindik bastante  
nago indarrian;  
pentsaturik azkena  
detala urrian,  
tristura sartutzen da  
biyotz barrenian.

14/ Irurogei urte  
pasatu ezkerro,  
konsuelo aundirik  
ez degu espero;  
oraziyua egin  
zagun egunero,  
beste munduan ondo  
izateko gero.

15/ Oraindikan lanian  
saiatzen naiz bastante,  
baña ezin egin det  
oso abundante;  
ezaguturik zarra  
nagon mediante,  
ondorengiak asko  
laguntzen dirate.

16/ Gaztetan desio nuan  
munduan bizitzia,  
eta betiko bagiña  
bezela ibiltzia,  
tunante askorekin  
parte artutzia...  
orain ezta milagro  
danak damutzia.

17/ Emaztiak eta biyok  
pasiatzen degu,  
al degun maizenian,  
uda eta negu;  
igual lana egin  
al baldin badegu,  
ontan segitutzia  
aurrera nai degu.

18/ Gesalaga'tar Batis  
orra nere izena,  
Zarautzen jaio eta  
bizitzen naizena;  
iñor ofenditzia  
artutzen det pena,  
bukatzera nua ta  
onekin azkena. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Tip. Elustondo.-Zarauz".

## BERTSO BERRIYAK

### ZARAUTZ'EN 1945'GARREN URTIAN JARRIAK

- 1/ Azaruaren amaikian  
Santa Klarako elizan,  
asko bezela allegatu naiz  
gizon ondraduen gisan;  
bi aizpa Gesalaga'tarren  
abitu artutzia zan,  
funtziyo ortako pasadizuak  
orain nai nituzke esan.
  
- 2/ Funtziyo ori biar bezela  
esplikatzen ezta erraza,  
estudiyorik ez daukat eta  
pixka bat esan da pasa;  
eliz guziya jendez betia,  
ez giñan egondu lasa,  
nolakua izango ote zan  
orduko monjaren poza?

3/ Iru praille prantziskotarrak  
zuten meza nagusiya,  
arrituta egondu giñan  
begira geunden guziya;  
ango kantuak eta doñuak  
badadukate graziya,  
Zeruko Aitak eman deiela  
urte askoko biziya!

4/ Kantorak ere gutziyenez  
ogei ta amar badia,  
erakutsalle edo giyari  
dutela Aita Garmendia;  
korutikan monjak laguntzen  
gogor saiatuak dia,  
arriturikan egondu giñan  
eliz barruko jendia.

5/ Aldare aurrian zeuden  
padrino eta madrinak,  
usatutzen dan bezelaxe  
egin biar dira lanak;  
ikusi nai izandu zuten  
beren aita eta amak,  
igualmente jarraitu dute  
beste pariente danak.

6/ Eta berdin aseptitu du  
kasikan erri guziyak,  
zergatikan bi aizpa oiek  
ziran ondo ikusiyak;  
agur eginda gelditu dira  
konbentuari josiyak,  
aien ordez ematen diyet  
orain neronek graziyak.

7/ Meza nagusi eder ori  
erditikan aurreratu,  
bi aizpa oiek orduan ziran  
gela batera beratu;  
sazerdotia komuniyuakin  
zitzaien urreratu,  
txit deboziyo aundiyarekin  
bi donzellak zuten artu.

8/ Meza bukatu eta ondoren  
juan nitzan gela aurrera,  
pozik bertara sartuko nitzan  
libre bazegon sarrera;  
bi aingeru zuriz jantziyak,  
ura ikusgarri ederra!  
baziduriyen zeruetatik  
jetxi zirala lurrera.

9/ —“Nere izena mudatutzia  
usatutzen dan bezela,  
badakizute orain artean  
Maria izandu naizela;  
orain “María Corazón de Jesús”  
jarri dirate berela,  
jakin zazute izen orrekin  
ezagututzen naizela.”

10/ “Sebastiana nere izena  
izandu da orain arte,  
usatutzen dan bezela  
gaur aldatu dirate  
“María del Niño Dios”  
orain ipiñi dirate,  
aurrera nola otsegin  
danok enteratu zerate.”

11/ Aita Iguaran'ek egin diye  
izugarrizko predikua,  
erderaz itzezin du baña  
badakit dala pijua;  
“Plus ultra” esaten zuan,  
beti aurrera dijua,  
urruti xamar egonagatik  
entzuten da orren ujua.

- 12/ Beste oraziyo batzuek  
egin zizkoten prailliak,  
eta ondoren moztu ere bai  
beren buruko illiak;  
Santa Klararen abitua  
jantzi ziyen ongilliak,  
Jaungoikuak paga ditzala  
ordun ziran langilliak.
- 13/ Zer konsuelo ote zeguan  
nobizi oien biyotzian,  
beren gorputza monja jantzita  
konbentun ikusitzian?  
oien desiuak egun orretan  
guztiyak kunplitu zian,  
beren bizitza guztirako  
kontentu gelditu zian.
- 14/ Azkenengo oraziyua  
egin zuten bukatzeko,  
gero Jauna agiri jarri  
arratsaldian sartzeko;  
gogua eginda geunden  
alimentua artzeko,  
esan dute amaiketakora  
gusto duana biltzeko.



15/ Modu orretan izandu zan  
funtziyuan despedira,  
gero arratsaldian ere  
askok egin gendun jira;  
erraja tartetikan egondu  
giñan alkarri begira,  
oso gustora eta kontentuz  
biyak geldituak dira.

16/ Agur orain biyotzez eta  
ondo bizitu zaitezte,  
pariente ta ezaun guziyak  
ondo ondratu zaituzte;  
zuek ere gugatik aztuko  
zeratenik ez det uste,  
iltzian beste munduan  
juntatuko gera laixte.

17/ Orain famili herriyarekin  
biarko dezute bizi,  
nere partetik guztiyai  
eman milla grazi;  
umil mundua pasatu eta  
zerua irabazi,  
utsegin bada barkaziyua  
eska diyogun Jesusi.

18/ Bukatutzer a nua eta  
onekin errematia,  
Juan Bautistak onetarako  
izan du borondatia;  
guztiyontzako mesedia da  
obra onak egitia,  
San Pedrok iriki deigula  
zeruetako atia. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Tip. Elustondo.-Zarauz".

(1948)

## BERTSO BERRIETAN ZORIONAK

Bertso auetan Jose Luis Tapia eta Franziska Etxabe'ren ezkontzaren berri ematen zaigu. Juan Bautista, Tapia jaunaren osaba txikia zan, aren ama ta onen amaren ama aizpak baitziran. Itzaurrean esan danez, Tapia jauna Juan Bautistari lagundua zan, etxegintzarako diru aurreratuz. Ezkontza au, 1948 urtean egin zan.

1/ Zorionak ematen dizkiot  
Juan Luis Tapia'ri,  
eta berdin bialtzen dizkot  
beraren emazteari;  
urte askuan osasunakin  
eta ontasuna ugari,  
iritxitzeko erregutuko  
diyot zeruko Jaunari.

2/ Lendabiziko juañ gñaden  
andre nobiyen etxera,  
amaiketako ona eginda  
nobiyaekin kotxera;  
noski gogua egiña zegon,  
etzan gelditu atzera,  
ai ura poza eraman zuten  
matrimoniyua artzera!

3/ Zarautzko parrokiyan  
egin dute uniyua,  
altare nagusiyan jarrita  
an zegon bikariyua;  
liburua zabaldu eta  
egin diye oraziyua,  
azkenian bota ere bai  
biyari bendiziyua.

4/ Belauniko egon ziraden  
padrino-madrinen erdiyan,  
mogitu ere egin gabe  
oso denbora aundiyan;  
bikaio jaunak meza emanda  
korutik kanta-aldiyan,  
eta gu pariente asko  
erne atzetik guardiyan.

- 5/ Bedeinkatu zituanian  
biyak bikariyo jaunak,  
altaretikan sankristira  
dira segiran juanak;  
akonpañatu zituzten ondo  
beren aita eta amak,  
igualmente segitu zuan  
beste pariente danak.
- 6/ Gero bazkari izugarri bat  
*Hotel Miramar*'ian zan,  
ogei eta amairu lagun  
kuadril ederra bai zan;  
alaxen ere guztiyentzako  
jan-eranik falta etzan,  
pixka bat berdindu giñanian  
aitonak guztiyak dantzan.
- 7/ Aitonak dantzan eta gaztiak  
ez dago zer esanikan,  
asko eztira noski izango  
an ibilli eztanikan;  
geienak mugitzen dira Barren-  
sororen filarmonikan,  
barrundik seko egon ezker  
ezta orrelako lanikan.

8/ Juan Luis, aditu zazu  
orain nere abixua,  
artu dezu andre ederra,  
gañera kariñosua;  
sano bazera eramango  
dezu bizitza goxua,  
amaika batek artuko luke  
tamaña ortako uxua.

9/ Zuri're zerbait esan biazut,  
Etxabe'tar Pakita,  
artu dezu senar bikaña  
eta bastante polita;  
anai-arrebak dirudizute  
biyok onduan jarrita,  
orain zuretzat gelditua da  
Irura'tik etorrita.

10/ Zuen gurasuak ez dute  
ixilik uzteik merezi,  
olako pareja dutelako  
berak egin eta azi;  
ondo erakutsi diyote  
munduan noletan bizi,  
nere partetik lagun deiela  
eskatzen diyot Jesusi.

11/ Argazki edo erretratuak  
asko dira ateriak,  
dudarik gabe izango dira  
izugarri dotoriak;  
txupinazuak botatzen zitun  
argitutzeko biriak,  
danok kontentu egon giñaden,  
gazte eta aguriak.

12/ Bedeinkaziyuak iraun dezala  
zuekin urte askuan,  
pakia eta osasunakin  
eta diru asko eskuan;  
beñere etzaitezte ibilli  
galdutzeko arriskuan,  
gero betiko etzaitezten  
infenuetara juan.

13/ Iñulabarrian erten ziran  
biyak biajatutzera,  
erderaz *luna de miel*  
kanpuan pasatutzera;  
Españiyako kapital asko  
banaka bixitatzera,  
na aspertzian etorriko  
dirade noski etxera.

14/ Zuen bodako pasadizuak  
ditut paperian jarri,  
oso egoki eztira baño  
ara amabost bertso berri;  
maitetasuna mundu onetan  
biar diyogu alkarri,  
Jaungoikuaren pake santua  
ortik biar deu ekarri.

15/ Egun orretako funtzia  
onekin nai det bukatu,  
eskolarikan ez daukat eta  
egingo nuan faltatu;  
nere burutik erten dirala  
ezin nezake ukatu,  
orrelakorik baldin badago  
arren guztiyak barkatu. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.



## BERTSO BERRIAK

### 1950'KO MIXIYO SANTUAI JARRIAK

- 1/ Notiziya bat euskal erritan  
astera nua zabaltzen,  
mixonistak nola izan diran  
beatzi egunetan Zarautzen;  
relijiyoko gauzetan nonbait  
asko ai giñan zabartzen,  
nere kristauak, saia biar deu  
geren anima salbatzen.
  
- 2/ Aita Garmendia frantziskotarra,  
Aita Agirretxe bestia,  
askok desio gendun Zarautzen  
predikatzen ikustia;  
oiek nai zuten gure animak  
zerurako erostia,  
penagarriya ez al da izango  
Luziferrentzat uztia?

3/ Irugarrena erderaz gendun,  
Aita Apraiz prestua,  
Euskalerriko semia da ta  
predikadore listua;  
pekatariyai ipiñi digu  
oso ordena estua,  
jira gaitezen asarre dago  
guziyon Juez justua.

4/ Jaungoikoaren lege santuak  
ondo gorde biar dia,  
lendabiziko bera maitatu,  
bestiak urrengo dia;  
amarretatik batzuek aztu  
xamarrak daude ordia,  
geure buruai galde diyogun:  
zuzen betetzen al dia?

5/ Animaz gogoratu gabe  
munduan amaika ero,  
badirade bizi diranak  
pekatuan egunero;  
lasaikeriyai emanda esanaz:  
"Mudatuko naiz gero...",  
emengo gauzak zer baliyo'ute  
anima galdu ezkerro?

6/ Gogor ein digu gizasemiai  
kontuz ibiltzeko mingaña,  
birau gaiztoz Jesusen kontra  
ez zikintzeko ezpañã;  
inpernutikan ateratako  
izkuntza txarra da baña,  
edo bestela bertara junda  
seguru dauka ordaña.

7/ Umiak ere bere zorra du:  
maitatzia gurasua,  
errespetua guardatu eta  
iduki gora jasua;  
al dan guzi-guziya lagundu,  
orra nere abisua,  
pake santuan igaro dedin  
emengo bizitza osua.

8/ Gurasuak e umiak azten  
kargu aundiyak daduzka,  
Jaungoikuaren lege santuan  
nola mutil eta neska;  
ta zabarkeriz uzten badiye  
zine txarretan da pesta,  
ume gaiztua ateratzia  
milagro aundiya ezta.

- 9/ Lagun urkoa biyotzetikan  
beti biar da maitatu,  
iñoiz gaitz egiñagatik  
biar diyogu barkatu;  
Jaungoikoaren lege santua  
ez degu biar ukatu,  
gero zeruan beti-betiko  
nai baldin badeu gozatu.
- 10/ Zerura jun nai eztuanikan  
ezta izango munduan,  
baña askotan ibiltzen gera  
aldrebeseke moduan;  
zer moduz bizi mixiyuetan  
ondo aditu genduan,  
ona izanak eztu damuko  
eriyotzako orduan.
- 11/ Il bezin laister jun biar degu  
Jesusen tribunalera,  
justuak poza eramango du,  
gaiztuarentzat galera;  
saia gaitezen aplaka dedin  
Jaungoikoaren kolera,  
edo bestela eternidade  
guztiko galduko gera.

12/ Aitortza onaren ondoren  
artu deu komuniyua,  
zeru ta lurren jabiarekin  
egĩñ e bai uniyua;  
abertentziyan nai nuke jarri  
Don Meliton bikayua,  
urrengorako egin dezala  
askoz eleiz aundiyua...

13/ Lenago zabar ibilli arren  
orain zuzendu gera  
konfesiyo on baten bidez  
Jesukristoren legera;  
eta gure argaltasunez  
berriz erortzen bagera,  
al dan lenena jun biar degu  
konfesorien aurrera.

14/ Erriyai buelta eman diyogu  
Kalbariyuak egiñaz,  
gogoratuaz Jesusen Pasiyo  
neke oñaze ta miñaz;  
Kalbariyora gurutze astuna  
iñola eraman eziñaz,  
bertan josita gugatik il zan  
bere amoriyo fiñaz.

15/ Jendiak asko asestitu du  
erriko eta erbeste,  
orrenbeste jende ikusi danik  
oraindano ez det uste;  
oker xamar gebiltzanak  
asko zuzendu gaituzte,  
gau eta egun bi elizetan  
alegiñak ein dituzte.

16/ Elizatikan atera eta  
plazara prozesiyua,  
bire guztiyan kantatutzen,  
ai ura deboziyua!  
umetxoak e ondo ikasita  
zeuden beren leziyua,  
erri guztiyan zabaldu bedi  
Aitaren bendiziyua.

17/ Berrogei urte pasiak dira  
lenengo atera nitula,  
Aita Luis eta Andresek  
beren sermoiak zitula;  
askok dakite geroztik sarri  
Batistak jarri ditula,  
komeni bada jarraitutzen  
Jainkoak lagun digula.

18/ Aita prestuak, gure artian  
ondo zerate portatu,  
urrena ere nai dutenian  
berriz gugana bueltatu;  
orainguakin nere bertsuak  
egiten dira bukatu,  
itzen batian faltatu badet  
arren guziyok barkatu. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Tip. Elustondo-Zarauz".

## NERE ALABARI KONTESTAZIOA KOMENTURA

1/ Nere alaba maitiak,  
akordatu zerate  
aitaren jaio-eguna  
dala mediante;  
orrenbeste erregali  
neri egin dirate,  
orrela segi zazute  
bizi naizen arte.

2/ Askatu nuanian  
zuen eskutitza,  
barrukuak zirudiyen  
zeruaren giltza;  
belaunikaturik biyok  
egiten otoitza,  
aitak ondo pasatzeko  
munduko bizeitza.



3/ Oraindikan geiago  
barruan det alla,  
Ama Birjiña eta  
San Inazion medalla;  
oiei errezatutzen  
ezta oso zalla,  
gero erraz pasatzeko  
zerurako malla.

4/ Eta estanpatxo bat  
txit ikusgarriya,  
Santu Jose eta Jesus,  
gañera Mariya;  
atzian dibuju bat  
oso pozkarriya,  
“*muy felices Pascuas*”  
nigatik jarriya.

5/ Irakurri dedanian  
papeltxo eder ura,  
nere barrengo biotza  
orduan piztu'ra;  
zorionian juan zi-  
ñaten komentura,  
saiatzen zerate ni  
sartutzen zerura!

6/ Danok jardun zerate  
noski erregututzen,  
zorionian nigatik  
Jesusi eskatutzen;  
Sor Rosariok lenago  
nindun ezagutzen,  
eta Sor Karmeni  
etzaio aztutzen.

7/ Nere partetikan  
eskerrak danori,  
ez dakit nola pagatu  
nik zuen lan ori;  
erregutuko diyot  
Zeruko Jaunari,  
zuengana irixteko  
bendiziyua ugari.

8/ Iru Abe Mari errezatzen  
ezta lan aundiya,  
len e oitura badet  
aspaldi jarriya;  
noski izango det  
zerbaiten premiya,  
asko bezela ni ere  
naiz pekatariya.

9/ Ondo pasa'itzazutela  
Eguarri-jaiak,  
orrelaxen dirade  
Batistaren naiak;  
alegre eta kontentu,  
gañera jan lasaiak,  
aztu ez ditezen beñe  
gauz onen usaiak.

10/ Onekin bukatutzen det  
oraingo saiua,  
labur xamarra zan  
nere errosaiua;  
iruroi ta bi urte  
ez nago iaiua,  
milla zortzi eun da  
laroi ta lauan jaiua.

(Zarautz'en Abenduaren 23, 1946)

\* \* \*

Felizitatutzen det  
alaba gaztia,  
bere eguna dala  
adieraztia;  
desio det osasunakin  
ondo ikustia,  
eta gero betiko  
zerua irabaztia.

Sor M. Niño Dios  
dezu izen berriya,  
monja jantzitakuan  
komentun jarriya;  
gaur zuretzako da  
egun pozkarriya,  
ezta makala izango  
zure afariya. (1)

---

(1) Sail au ere, besteak bezela ta asieran esan dan bezela, Zaldubiren bertso-bildumatik artua da. Ez gera, ordea, oroitzen, moldiztegiko bertso-papera ala eskuz idatzitako orria zan.

**BERTSO BERRIAK**  
**AMA BIRJIÑA ARANTZAZUKO**  
**BEDERATZIURRENARI**

- 1/ Arantzazuko Ama Birjiñan  
bederatziurrena,  
nola izan dan publikatzeko  
desioz daukat barrena;  
zenbaterañoeko deboziyua  
dagoan Zarauztarrena,  
kantak jartzeko bere laguntza  
eskatzen diyot aurrena.
  
- 2/ Agor-illaren lendabiziko  
egunian ziran asi,  
goiz ta iñular oinbeste jende  
ez degu askotan ikusi;  
ta azkeneko iru egunak  
bere sermoi eta guzi,  
Ama Birjiñan aunditasuna  
digute adierazi.

- 3/ Ikasi degu Ama Birjiña  
txit errukitsua dala,  
anima eta korputzerako  
ezta anparo makala;  
umildu eta zer desio dan  
eskatu iogun beriala,  
esana dago komeni bada  
utsik ertengo eztala.
- 4/ Zenbaterañoiko maitetasuna  
diyozun euskaldunari,  
zerutik jetxita laguntzera  
bertara ziñan etorri;  
txintxarri edo kanpaia juaz  
arantza tartian jarri,  
egun batian azaldu ziñan  
Rodrigo artzaitxuari.
- 5/ Ama Birjiña azaldu eta  
Rodrigokin itzegin du,  
ermitatxo bat an egiteko  
berari ziyon agindu;  
orduasi, geroztik segi,  
jendiak lana egin du,  
dudarik ezta Ama Birjiñak  
asko diyela lagundu.

6/ Ama Birjiña dala meriyo  
an egin diraden lanak,  
arriturikan gelditzen dira  
ikusitzen duten danak;  
urtian bein bisitatxo bat  
egiten diyo al duanak,  
berrizko gogoz etortzen dira  
lendabiziko juanak.

7/ San Franziskoren semiak daude  
bertan bizitzen jarriyak,  
eta mutiko asko dauzkate  
estudiatzera ekarriyak,  
aurrera ere izan ditezen  
sermoilari arrigarriyak;  
zarrak betiko ez dira eta  
biar dirade berriyak.

8/ Arantzazuko Ama Birjiña  
Gipuzkoako Zaindariya,  
biotzetikan eskatzen dizut  
orain, Ama Mariya:  
eriotzako orduan arren  
izan gure errukiya,  
gure animak billatu dezan  
zeruko atia irikiya.

- 9/ Kofradi onen zuzendariya  
Aita Olaizola jauna,  
predikadore ederra da eta  
kantatutzen oso ona;  
buru oneko langille azkarra,  
alaxen daduka sona,  
ezta errez billatutzen  
orrelako eleiz-gizona.
- 10/ Ikusi degu Aita Aranguren  
predikadore bikaña,  
euskeraz bezin ederki  
erderaz e alajaña;  
lenago ere ona ziñala  
ori banekiyen baña,  
naiago nuke neria balitz  
zuk dadukazun mingaña.
- 11/ Predikadore ederra zaude  
izanagatik gaztia,  
desio dizut urte askuan  
talentu orri eustia;  
eta Jesukristoren dotriña  
munduan erakustia,  
gero betiko galdu ez dedin  
gure anima tristia.



12/ Azken agurra, Arantzazuko  
Ama Birjiñ maitatsua,  
utsegin badet arren barkatu,  
enaiz gizon jakintsua;  
mantu-pian gorde gaitzatu,  
Birjiña errukitsua,  
ori orrela gerta dedilla,  
bukatutzen det bertsua. (1)

Bautista

---

(1) Bertso-papera, "Tip. Elustondo.-Zarauz".

## BERTSO BERRIAK

### GESALAGA'TAR JUAN BAUTISTAK JARRIAK

(SAN JUAN BAUTISTAREN BIZITZARI)

Dakigunez, San Juan Bautista zuan Zal-  
dubik bere izeneko santua, baita ere zeru  
guziko santurik maiteena.

Billobak leen ere esan duanez, festa po-  
litak antolatzen zituan maastian santu onen  
egunean: bezpera-gauean, San Juan sua;  
egunean berean, goizeko lauretan, eguzki-  
-sentia baño leen, etxaperuak...

Orregatik, eztago zer arriturik santu oni  
ere bertso-aldi bat jarri izanaz.

1/ Gusto duanak aditu beza,  
astera nua kantari,  
bertso batzuek jarri nayian  
San Juan Bautistari;  
lendabiziko laguntza eskatu  
egiten diyot berari,  
goiko zerutik argitasuna  
arren bialtzeko neri.

2/ Zakariasek Santa Isabel  
zuan bere emazia,  
edadetuta familirik ez  
zeuken bizitza tristia;  
Zakariasi goi-aingeruak  
eman ziyon albistia:  
“Laister seme bat izango dezu  
eta konsola zaitia!”

3/ Au entzutian Zakarias  
sekulako arritu zan,  
goi-aingeruak esan ziyona  
aber egiya ote zan;  
fede gutxitxo zedukalako  
mututurik gelditu zan,  
alaxen ere bere denboran  
Aita San Juan jaio zan.

- 4/ Denbora artan Herodesek  
jaio zala ikasita,  
pensatu zuan galduko zula  
aur danak illerazita;  
libratu ziran ama-semiak  
basamortura igesita,  
Herodes ilda ama etxera  
semia bertan utzita.
- 5/ Basamortuan Juan egon zan  
makiñatxo bat urtian,  
ezkurra eta eztiya janaz  
Jaunaren borondatian;  
bere jantziyak kamelu-larruz  
nola egiñak baitian,  
antxen egon zan predikatzeko  
garaia etorri artian.
- 6/ Juduak Jerusalendik biali  
zizkioten galdetzera,  
esan ziyen: "Ni ez naiz Kristo,  
orra nere erantzuera!"  
"Zein zera bada? Profetaren bat  
edo Elias al zera?"  
"Basuan dagonen otsa naiz ni,  
eta zuazte etxera!"

7/ Predikatutzen asi zanian  
arren orduko mingaña,  
berriz zioten aber Kristo  
berbera zan alajaña;  
“Zuen artian or daukazute  
ezagututzen ez baña,  
ni ez naiz aren oñetako  
ugala askatzeko aña!”

8/ Aitormen au ere San Juanek  
garbi asko egin zuan,  
Espiritu Santua uso-itxuran  
noletan ikusi zuan;  
zerutik jetxita jarri zala  
Jesu-Kristoren buruan,  
nor zan Juanek arteraño  
ezagututzen etzuan.

9/ San Juanek predikatzen zun  
Jesukristoren fedia,  
aitorturikan Jesus zala  
Jaungoikoaren Semia;  
eta bataioz ematen ziyen  
askoi zeruko bidia,  
beregana biltzen zitzaion  
berebiziko jendia.

10/ Juda-erri ta Jerusalemendar  
asko zijuan beregana,  
esanaz: "Nai det barkaziyua  
geure pekatuen dana!"  
Umiltasunez aitorturikan  
beren utsegite dana,  
azkenian eskatutzen ziyen  
urez bataio on bana.

11/ Bataio ori ematen zuan  
Jordango ibai-ertzian,  
ori artu nai etzutenak  
asko izango etzian;  
alde guztitik millaka jende  
ortara etortzen zian,  
bataiatuta kontentu asko  
etxera bueltatzen zian.

12/ Pekatuari jarritzen ziyon  
oso ordena estua,  
esaten zuan etzala libre  
matrimoniyo nastua;  
onekin erregiak artu zun  
sekulako disgustua,  
baita preso sartu ere  
San Juan Bautista prestua.

13/ Erregiaren jaiotegunian  
egiten zan festa aundiya,  
Herodiasen alabak berriz  
guztizko dantza-aldiya;  
erregiari sartu zitzaion  
biyotzeraño graziya,  
esan ziyon: "Emango dizut  
eskatzen dezun guztiya!"

14/ Aguro jun zan amarengana,  
kasik zirudin erua,  
zer eskatuko ziyon galdezka  
gauza edo dirua;  
amak aguro billatu zuan  
santua galtzeko modua:  
"Eska akiyon plater gañian  
Aita San Juanen burua!"

15/ Amak esana eskatu ziyon  
alabak erregiari,  
plater batian Juanen burua  
eramateko berari;  
ikaratu zan erregia baña  
eskatutzian gauza ori,  
alaxen ere moztuta eman  
ziyon neska gaiztoari.

16/ Orduan Herodias bizi zan  
bere senarra galduta,  
alaxen ere etzan bakarrik  
geiagorena bilduta;  
San Juanek debekatzen zuan  
orrelakuen konduta,  
arengatik il-erazi zuan  
bere lepua kenduta.

17/ Orra kantatu San Juanen  
bizitza ta despedira,  
Garagarrillan ogei ta lauan  
festak zelebrazten dira;  
mundu guztiya ura ondratzen,  
bera zerutik begira,  
bedeinkaziyo aundiyak bota  
ditzazu Euskal-errira!

18/ Eskaritxo bat egiten dizut  
txit umiltasun aundiyan,  
azken orduan gaudenian  
eriyotzako larriyan;  
santu aundiya, jarri zaitte  
gure animen guardiyan,  
eta betiko sartu gaitzatzu  
zeruetako gloriyan. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.



## BERTSO BERRIYAK

### SAN PEDROREN BIZITZARI JARRIYAK

- 1/ Jaun Zerukuak bota ninduan  
mundura bertsolariya,  
arengatikan kankak jartzeko  
beti daukat egarriya;  
San Pedron bizitza mundu onetan  
ain zan arrigarriya,  
biar bezela esplikatzeke  
eskolaz nago urriya,  
bere laguntzaz orra paperan  
nola daukaten jarriya.
  
- 2/ Pedro jaio zan Betsaida deitzen  
zaion erri txiki batian,  
bere guraso umilletatik  
Galileako partian;  
zein egunetan seguru eztakit,  
Jesus jaio etzan artian,  
aita bezela itxas-gizona  
gero aunditu zanian,  
bere ogiya irabazitzen  
saiatutzen zan lanian.

- 3/ Askoi bezela suertatu zaio  
garaian esposatzia,  
nonbait ondo etzerizkiyon  
bakarrikan bizitzia;  
ala zeguala anaiak nai zun  
berri onez poztutzia,  
egitako Mesias jaio zala ta  
nai al zun ezagutzia,  
erabaki zuten biyamonian  
lenbailen bisitatzia.
- 4/ Esan bezela Andres ta biyak  
Jesusengana jua zian,  
Salbadoriak grazi on batez  
oso ondo artuak zian;  
egun bat berakin igaro eta  
gustora bueltatu zian,  
famiyari esan ziyoten  
zer moduz ibilli zian,  
momentutikan Jesusengana  
danak gonbertitu zian.
- 5/ Ainbesteraño maite zun Jesus,  
Jesusek igual bera,  
beñ ikusi zun itxasotikan  
utsik Pedron etorrera;  
Jesus sartu zan txalupan eta  
jun ziran itxas aurrera,  
sariak bete arrai ederrez,  
buelatu ziran osterera,  
Jesusek diyo: "Pedro, gizonen  
arrantzale izango zera."

- 6/ Zenbateraño Jesusengana  
zedukan amoriyua,  
emaztiaren baimenarekin  
utzi zun ofiziyua;  
andik aurrera predikatzen zun  
Jesusen relijiyua,  
esaten zuan nundik dagan  
guretzat salbaziyua,  
Pedron bitartez amaika anima  
bada zerura iyua.
- 7/ Len itxas-gizona baziñan ere  
orain predikadoria,  
gabu gabeko jakinduriya  
eta iztun dotoria;  
aren mingañoak gonbertitzen zun  
ezpaldin bazan traidoria,  
kale ta plazan jartzen zitzaion  
berebiziko jendia,  
San Pedron mirariz sendatuak  
makiñatxo bat badia.
- 8/ Jesusen amabi jarraitzalletan  
Pedro zan buru jarriya,  
esan biar det egun bateko  
gertakizun izugarriya:  
Jesus preso artu zutenian  
aren orduko larriya!  
soldadu bati matxetiakin  
moztu ziyon belarriya,  
Jesusek osterera jarri ta sano  
egiñikan mirariya.

9/ "Zu're Jesusen laguna zera?"  
Pedroi ziyoten galdetu,  
"Ezetz ta ezetz, ez det ezautzen!"  
iru aldiz zuan ukatu;  
eta orduan ollarrak ziyon  
kukurrukua kantatu,  
jausi zitzaion gertatu zala  
Jesusek ziyona kontatu,  
damutasunez negar egiñaz  
iru egun zitun pasatu.

10/ Baña Jesusek ezautu zuan  
Pedron ezereztasuna,  
arengatikan barkatu ziyon  
egin zuan ustasuna;  
eta aurrera eman ziyon  
len zuan laguntasuna,  
Espiritu Santuan bitartez  
munduan zan jakintsuna,  
orra noraño iritxi dan  
San Pedron aunditasuna.

11/ Jesusen amabi jarraitzalletan  
Pedro au zan burua,  
oietatik bat etzan izandu  
oso fiñ da segurua;  
Jesus salduta artu nai izan  
zubena asko dirua,  
bere egiñaz damutu eta  
galdu zun gero burua,  
piko batetik zintzilika  
ai ura paraderua!

12/ Ostera Pedro Jerusalem  
Juduai predikatzer,  
dotriña berriya erakutsiyaz  
Jesusengana jartzera;  
etorri ziran Herodesgandik  
lotuta preso sartzer,  
amasei soldadu, txandan launa,  
arretaz kontu artzer,  
aingeruak lagun erten da, Pedro,  
luzaro egon etzer.

13/ Presondegitik erten da gero  
Judea eta Asian,  
millaka asko konbertituaz  
Jesukristoren klasian;  
berrogei eta iru urtera  
Erromâ bueltatu zian,  
erri onetan iru edo lau urte  
besterik egon etzian,  
enperadorian bitartez judu  
guztiyak atera zian.

14/ Mundu guziyan predikatzeke  
zuan bere desiua,  
Europan ere toki askotan  
egin zuan pasiua;  
leku guztiyan predikatutzen  
Jesukriston Pasiua,  
beste iñondik ez daguala  
animen salbaziua,  
arreta aundiz ikasitzeke  
eman zigun leziua.

15/ Pablo ta Pedro biyak Erroman  
predikatzen ai zirala,  
burrukariyak sortu zitzaizken  
atzitu nairik beriala;  
Pedro orduan igesi nairik  
ziudadetik zijuala,  
Jesusek esan ziyon berriz e  
gurutz iltzera dijuala,  
au entzutian konsideratuta  
jarri zan iltzeko ala.

16/ Egun berian preso artu dute  
Pedro bigarren aldiyan,  
beatzi illabete pasa zituan  
San Pabloren konpañiyan;  
Jesusen dotriña esaten zuan  
kartzeleruen erdiyan,  
berrogei preso jarri ziraden  
Jesukriston alderdiyan,  
eta gañera bi soldadu zar  
zeudenak beren guardiyan.

17/ Garagarrillak ogei ta beatzi  
zituan egun batian,  
eriotzara epaitu zuten  
gurutze astun da fuertian;  
buruz bera jartzeko eskatu zun  
berak ondradamentian,  
esan da egin, alaxen il zan  
gutzizko borondatian,  
orain giltzero jarriya dago  
zeruetako atian.

18/ *Gesalaga'tar Juan Bautista*  
orra izena azaldu,  
utsegin badet sentimenturik  
iñork artuko ez al du!  
anparo billa zugana nator  
betiko ez nadin galdu,  
santu aundiya, eriyotzian  
guri atia zabaldu,  
eta betiko gozatutzera  
Jesusengana bialdu. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

## BERTSO BERRIYAK

### SANSONEN BIZITZARI JARRIYAK

- 1/ Komeni bada, lagun didala  
gure Jainkuak kantatzen,  
eta desio detan bezela  
euskeraz bertsuak jartzen;  
mundura gizon indartsuak  
asko xamar dira sartzen,  
oietako bat zein izandu dan  
astera nua azaltzen.
  
- 2/ Sanson munduan izandu zala  
askotan degu aditu,  
eta azaña izugarriyak  
egiñak ere baditu;  
aren bizitza irakurrita  
sekulako naiz arritu  
guzti-guztiyak ezpada ere  
batzuek esan biaitut.



3/ Manu eta bere emaztia  
aurrik gabekuak ziran,  
alaxen ere asko bezela  
aserretutzen etziran;  
aingeruak ziyen, jan-edanian  
kontuz ibiltzen baziran,  
Jaungoikuaren birtutez nola  
semedun izango ziran.

4/ Saara ondoan jaio zan  
Sanson ala biarrian,  
askok bezela azi ere bai  
amak bere bularrian;  
emezortzi urte zituaneko  
sartua zan indarrian,  
adiskide bat billatu zuan  
Efrain'go erri zarrian.

5/ Gurasuakin emazte-gaia  
ikustera zijuala,  
leoi gaizto bat erten zitzaien  
aua zabalik zuala;  
baña Sansonek bi eskuakin  
itsatsi ziyon beriala,  
aguro menderatu zuan  
antxumetxua bezela.

6/ Ezkondu eta eztaietako  
ondorengo zazpi egunak,  
kontentu asko pasa zituzten  
bera ta bere lagunak;  
oitura zan asmatutzia  
gauza gorde ta illunak,  
Sansonek ziyen: "Ezetz asmatu  
nik esaten ditudanak!"

7/ Zer nai zun esan asmakizunak  
iñola etziran ausartzen,  
gazte arruak izanagatik  
etziran burura sartzen;  
Sansonen emazia bera're  
askotan zuten biartzen,  
eta azkenian arek esanda  
Sansoni ziyen asmatzen.

8/ Asmatzalleai ordaindu eta  
gelditu nai zun kituan,  
Alkalon uriyai kontu artzen  
tropak ikusi zituan;  
berak bakarrik eraso eta  
ogeitamar il zituan,  
ayen jantziyak asmatzalleai  
emanda ordaindu zituan!

9/ Ori eginda ondorenian  
aitaren etxera juan zan,  
aldegin ziyola ikusi eta  
emaztia asi zan mudantzan;  
berriz bueltatuko etzalakuan  
bestiakin ezkondu zan,  
gauza orrekin Sanson betiko  
gorrotoz aserretu zan.

10/ Sanson gorrotoz kalte egitera  
gogorki aserreturik,  
irureun axari eskuratuta  
biñaka isatsak loturik;  
bialdu zitun biyen erdiyan  
illati bana suturik,  
gari guziyak utzi zizkoten  
erre ta auts biurturik.

11/ Orrenbestekin etzan gelditu,  
segitu zuan txarrera,  
geroztik ere gizonak iltzen  
egiten zuan sarrera;  
lau kana eginda aldegin zuan  
toki ezkutu batera,  
iru milla gizon jarri zitzaizkon  
bere aurrian batera.

- 12/ Alako gizon gaizkille ura  
ipiñi zuten lotuta,  
alaxen ere laixter zan libre  
indarrakin puskatuta;  
asto baten matrail-ezurra  
antxe bertan billatuta,  
milla il zitun, bestiak iges  
jun ziraden bildurtuta.
- 13/ Sanson ostatur jaten jarri zan  
Gaza zeritzan erriyan,  
erriko atia itxi ziyoten,  
soldadu asko guardiyan;  
iñortxo ere gogatu gabe  
aldegin zun gau erdiyan,  
urrengo egunez ate ta guzi  
antxen zegoen mendiyen.
- 14/ Gorputzez lengo zentoiyen edo  
jigante antzekua zan,  
lau kana eta erdiko oia  
eta bi zabal biar zan;  
Gaza'ko atia mendiratuta  
Sarek'ko ibarrera jua zan,  
Dalila zeritzan emakumez  
bigarrengo ezkondu zan.

15/ Onen bitartez nai zuten jakin  
indarra nun da nola zun,  
baña Sansonek lendabiziko  
gezurrez ziyon erantzun;  
emaztiak berriz negarrez eta  
suspirioz jarraitzen zun.  
buruko illetan zula indarra  
azkenian aitortu zun.

16/ Lo zegoala moztu zizkiyon  
ille guztiyak batera,  
filistindarrak atxitu eta  
zizken begiyak atera;  
katez lotuta eraman zuten  
paraje itxi batera,  
astua izan balitz bezela  
errotari eragitera.

17/ Andik illabete batzutara  
zituzten festa aundiyak,  
jendez betiak ikusten ziran  
elizaren alderdiyak;  
Sanson erdiyan ipiñi zuten  
egiteko parre aundiyak...  
eliza bera bota zuan ta  
antxen il ziran guziyak.

18/ Orra euskeraz jarri Sansonen  
bizitza ta bukaera,  
umiltasunez mundu guztiyai  
egiten diyot galdera:  
Gizon abillak orain badira,  
orrelakorik ote da?  
Gesalaga'tar Juan Bautistak  
ditu bertsuak atera. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

Bertso auek, republika-garaiako periodiku batean ere argitaratu ziran; bañan ez degu periodiku osoa eskuratu, bertso auek dituan puska bat baizik. Orre-gatik, ez dakigu zein egunetakoa dan, ezta zein urtetakoa ere, 1936 urtea baño lenagokoa izan bear dua-la ezpada. Periodiku ontan, lenengo bertsoa guztiz diferente dago:

Bertso berriyak jartzera nua  
gusto duanak ikasi,  
orretarako laguntza eskatu  
egiten diyot Jesusi;  
komeni bada, eman deidala  
biar detan aña grazi,  
Sansonen bizitza nolakua zan  
nai nuke adierazi.

(1947)

## SOR KORONAZIONERI ZORIONAK

Sor Koronazion, Zarautz'ko Santa Klara komentuko moja bat da. Aiarra da jaiotzez, eta bertsotan poliki egiten du.

Santa Klarako mojak, Juan Bautistari deitzen zioten, komentu barrenean, baratza-  
-edo, gizaseme-indarrak eskatzen zituan lan astunen bat egin bear zanean. Olakoetan, Sor Koronazion dalako orrek laguntzen zion. Ortik egin zuten ezaguera. Sor Koronazion'ek gero, Juan Bautistaren jaioteguna zetorrenean, zoriona bertsotan bialtzen zion. Ura profesatu zanean, berriz, 1947/IV/13'an, onako bertso auk bialdu zizkion onek:

1/ Pozaren pozez letra batzuek  
eskribitutzera nua,  
Jaungoikoaren laguntzarekin  
neu bakarrikan ez nua;  
Sor Koronazionen profesan  
ai ua funziyo sanua!  
zorionak berai emateko  
orain artu det asmua.

2/ Apirillaren amairuan  
amar da erdiyetan zan,  
meza nagusi guztiz ederra  
Santa Klarako elizan;  
neroni ere allegatu naiz  
gizon ondraduen gisan,  
eliz guziya kasik betia  
makiña bat jende bazan.

3/ Bere senide Aita Jose Marik  
zuan meza nagusiya,  
korutik mojak kantatu dute  
beren alegin guziya;  
eztarri ederra daukate eta  
oso ondo ikasiya,  
egun orretan bazkari ona  
zuten ondo mereziya.



- 4/ Aldare aurrian zeuden  
zure aita eta ama,  
beren erdiyan illobatxua  
oraindik gaztia dana;  
ederki asko apaindu eta  
preparatuta juana,  
osaben eskutikan artu du  
lendabiziko Jauna.
- 5/ Geiago ere baziñuzen  
zeure lagun amantiak,  
aldarian beste iru illoba  
mezaren aiudantiak;  
osaba eta izeko asko,  
gañera parientiak,  
oiek guziyak ekarri ditu  
zukanako borondatiak.
- 6/ Don Jesus San Sebastianek  
kurpitotikan sermoia,  
egoki asko esplikatu du  
noletan iritxi goia;  
mundu onetan ondo garbitu  
pekatuaren erdoia,  
gero artu nai baldin badegu  
zeruetako koroia.

7/ Esan biar det nolakua dan  
zure munduko bizitza,  
nola jun ziñan guraso eta  
senide danak utzita;  
gazte ziñala egiten zendun  
komentuetan bixita,  
azkenian bertan gelditu  
zera atiak itxita.

8/ Zeure desiua kunplitu dezu,  
dudarik ezta orretan,  
Jesusekin esposatuta  
bizitzia mundu onetan;  
Jaungoikoa ta Ama Birjiña  
Adoratuaz benetan,  
eriotzako azken orduan  
etzera egongo penetan.

9/ Zure guraso maitagarriyak  
egin dute alegiña,  
beren umiai erakutsitzen  
Jesukristoren dotriña;  
nere partetik artu bezate  
zorion da atsegiña,  
beren fabore izan dedilla  
zeruko Ama Birjiña.

10/ Illobak ere ikusi ditut  
estudiante bikañak,  
noiz edo noiz lana egingo  
dute oriyen mingañak;  
itxura txarrik ez dadukate,  
gorputz eder ta lirañak,  
zarrak betiko ez gera eta  
biar dirade ordañak.

11/ Nere partetikan kunplitu  
komentuko guziyakin,  
aurrena Madria eta  
zarauztar guziyakin;  
berdin beste mojatxo  
maitagarriyarekin,  
oraziyo bat Jaungoikoari  
neregatikan egin.

12/ Bukatzerako ematen dizut  
zorion eta graziya,  
osasunakin pasatutzeko  
mundu onetako biziya;  
orain betiko gelditu zera  
komentuari josiya,  
gero zeruan gozatutzeko  
eternidade guziya. (1)

---

(1) Bertso-papera, "Tip. Elustondo.-Zarauz".

## BERTSO BERRIAK

(ZARAUTZKO ERRIARI)

1/ Bertso berri batzuek  
nai nituzke jarri,  
Zarautzko erriyaren  
alabantzagarri,  
nolako ederra dan  
esango det sarri,  
ikasi nai baditu,  
gusto duenari.

2/ Zarautzko erri ori  
orra nun dagan:  
Getari ta Oriyo,  
Aiaren albuan,  
ondartza aundiya eta  
itxaso onduan...  
orrelain ederrikan  
ote da munduan?

3/ Bi milla metro eta  
luzia dan kosta,  
jendia jolasteko  
oso apropos-ta,  
udara izanagatik  
fresko edo otz-ta,  
kasik mundu guztiyan  
oberikan ezta.

4/ Kostan itzal ederra  
arku telazkua,  
bertatik artutzeko  
itxas-aize preskua;  
*altavoza* entzunaz  
moda berrikua,  
penak aztu-azteko  
ai ura lekua!

5/ Itxaso zabaleko  
ango olatuak,  
apar txuri-ederrak  
urak goratuak;  
kanpotar asko dira  
orri beiratuak,  
ikusi utsarekin  
kasik txoratuak.

6/ Españiya bezela  
beste erreñuak  
mugitu-azten ditu  
itxasuen soñuak;  
etorri eta bertan  
arturik bañuak,  
sendatutzen dituzte  
dauzkaten dañuak.

7/ Udaran arrotz askok  
egite'ute jira,  
Españi guztitikan  
etorritzen dira;  
frantzes eta ingeles  
alemanak badira,  
Amerikatik ere  
etorri oi dira.

8/ Zarautzko kale eder  
ongi garbituak,  
zikiña kentzen dabilz  
beti enpliatuak;  
igual Plaza zarra  
eta merkatuak,  
txukun jarriyak dauzka  
Ayuntamentuak.

9/ Emengo palaziyo ta  
etxe-edertasuna,  
dana txukun jarriya  
ura apaintasuna!  
orrek erakusten du  
aberastasuna,  
ezta nonai billatzen  
orlako ontasuna.

10/ Pelotarako frontoi  
ederrak badira,  
iñoiz partidu onak  
jokatutzen dira;  
jendia franko ere bai  
albotik begira,  
galtzen dutenak triste  
ateratzen dira.

11/ Ola edo fabrikak  
badira ugari,  
segitzen diyotenak  
nor bere lanari;  
etxia apaintzia  
pentsatzen dunari,  
buelta bat egiteko  
diyotet denari.

12/ Hotel edo ostatuz  
badago aukera,  
zuk nai dezun lekuan  
geldituko zera;  
baldin oie-danetan  
gusto ezpazera,  
igual jua zindezke  
norbaiten etxera.

13/ Relijiyua ezta  
atzera gelditu,  
parroki ederra ta  
komentu asko ditu;  
apaiz edo frailliak,  
mojak e baditu,  
aurrera eta geiago  
bitez ugaritu.

14/ Kolejiyuak edo  
eskola asko dira,  
maisu eta maistra  
abillak badira;  
diyotenez jakintsu  
ta abillak dira,  
gaztiak edukatzen  
saiatutzen dira.



15/ Nekazaritza eztet  
utzi nai aztuta,  
ixilik lagatzia  
merezi eztu-ta;  
lana lasai eginda  
kosetxak poztuta,  
batzuek bizi dira  
txit aberastuta.

16/ Eraritikan bada  
biar dan tamaña,  
sagardo ederrak eta  
asko txakoliña;  
ardua ere bada  
gutxi xamar baña,  
bertako kosetxakin  
Zarautzen egiña.

17/ Musika ona dagola  
askok dute esan,  
kasikan egunero  
jotzen dute plazan;  
jendia franko ere bai  
ibiltzen da dantzan,  
mozkorrak baleude  
bezela balantzan...

18/ Negu beltza igaro  
baldin badezu triste,  
udaran Zarautzara  
etorri zaitezte,  
iñor gelditu gabe,  
nola zar da gazte...  
damutuko zaizunik  
ez sekulan uste! (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

## BERTSO BERRIAK

### SAN ROKEREN BIZITZARI JARRIAK

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua,  
gusto duanak ikasi,  
orretarako laguntza eskatu  
egiten diyot Jesusi:  
komeni bada, eman didala  
biar detan ainbat grazi,  
ejenplo ona erakustia  
ezin leike galerazi,  
San Roken bizitza nolakua zan  
nai nuke adierazi.
  
- 2/ Milla berregun larogei eta  
laugarrengo urtia,  
Roke jaio zan Montpeller'en,  
au da Frantziko partia;  
bere aita zan gobernadoria,  
ama birtutez betia,  
oien semia munduratu zan  
misterioso fuertia,  
projimuari lagundutzeko  
ark zuan borondatia.

- 3/ Misteriotako siñalia zun  
gurutze gorri bat petxuan,  
asteazken da larunbatian  
bularrik artzen etzuan;  
Jangoikuaren birtutia zala  
orretan ezagun zuan,  
gazte zalarik interes eta  
gradu aundiyak zituan,  
ogei urtetan bere osaben  
kontura utzi zituan.
- 4/ Umildadezko tunika jantzita  
etxetik nola juan zan,  
erririk-erri oñez eskian  
Erromara abitu zan;  
gazte zalarik osasunez  
oso fuertia etzan,  
Toscana'ko ziudadian  
gaxo kuidatzen jarri zan,  
mirari asko egiñaz  
hospitalian egon zan.
- 5/ Andik ertenda pasa zituan  
Italiko ziudadiak,  
arriturikan uzten zituan  
ark zeukan abildadiak  
allegatu zan Erromara ta  
maitatzen zuan jendiak,  
pestiak zeuden hospitaletan  
egiñaz karidadiak,  
gaxo zeudenak sendatzen zitun  
mirariz aren fediak.

6/ Inguru aietan barriatu zan  
miraritsua dala Roke,  
ango jendiak oso santutzat  
gizon aunditzat dauke;  
esaten zuten: "Iñon gaitz edo  
pesterikan balitzake,  
naiz urruti egonagatik  
aguro juango litzake,  
Roken bitartez mirariyakin  
laixter kenduko litzake."

7/ Rokek nai ziyon Aita Santuai  
bere oñetan muñegin,  
lenago artu zuan asmua  
orrela kunplitu dedin;  
belaunikaturik eskatu ziyon  
arren bedeinkatu zedin,  
eta gañera pekatu guztiyen  
barkaziyua're berdin,  
desio guztiyak kunplitu eta  
andikan zuan aldegin.

8/ Egun batian esnatu zan  
kallentura aundi batekin,  
iñola ezin auantaturik  
ankeko min gogorrakin;  
ezin egon zan ixilik eta  
egiten zun kaltiakin,  
hospitaletik irten egin zan  
bere borondatiakin,  
kale-baztarrian gelditu zan  
zeruko laguntzarekin.

- 9/ Kale-bazterrian zeguala  
kejatu ziran auzuak,  
gaitz pegakorra zedukala ta  
notizi lastimosuak;  
ziudadetik mendi aldera  
egin zituan pausuak,  
llagatutako ankan oñaziak  
ain ziraden penosuak,  
min-oñaziak arindu zizkan  
iturriko ur gozuak.
- 10/ Roken bordatik urrian zegon  
gastelu bat aberatsena,  
dudarik ezta, etxe orretan  
izango zan naiko jana;  
ango zakurrak maitik ogiya  
eamaten du Rokegana,  
gero morroiak akordatuta  
ziraden segika juana,  
nagusiyari esan ziyoten  
an ikusitako dana.
- 11/ Nagusi jauna aguro jun zan  
Roke zeguan bordara,  
eta Rokek itzegin nai ez,  
obeto zun ez jun ara;  
adirazi ziyon gaitz pegakor  
aundiyakin daguala,  
erantzun ziyon nagusi jaunak  
bildurrez etzeguala,  
ura ikusita konbertitu zan,  
bera're juan zan ala.

12/ Momentutikan nagusi jauna  
pelegrino jantzita,  
santuen deia aditu zuan,  
eta, mundua utzita,  
Plazentzira jun da aterik ate  
limosna biltzen asita;  
askok txistu ta umiak burla  
ura ala ikusita  
orain zeruan gozatzen dago  
munduan orla bizita.

13/ Bere errira juan zedilla  
zeruko abixua zuan,  
alain flakua ta mudatua  
iñork ezagutu etzuan;  
izugarrizko gerra zebillen  
aren erri ta inguruan,  
aguro preso sartu zuten  
ixpiyen bat zalakuan,  
bere osabak agindu eta  
betiko kalabozuan.

14/ Roken egiya sinistu ezin,  
fede aundikuak ezta,  
errugabia erabaki dute  
giltzapetuta uzta;  
suertatu zaio herriz ere  
mortifikatzen astia,  
ogiya janda, ura erari  
ta disziplina bestia,  
bost urte orrela pasa zituan,  
ai zer egoera tristia!

15/ Presondegiyan sentitu zuan  
bere burua gaxotua,  
eskatu zituan konfesoría,  
gañera sakramentua;  
andikan laixter ilda zeguala  
kartzela-zaiak billatua,  
zeruko argiz buruan letra  
batzuek eskribitua,  
ziyona: "Nitzaz oroitzen dana  
izango da sendatua".

16/ Nor zan ezagutu zutenian  
ai ura osabaen pena!  
zergatik berak emana zuan  
kartzelatzeko ordena;  
ogei ta amalau urte zituala  
mundutik zerura juna,  
Agostuaren amaseian da  
Aita San Roke eguna,  
beraren onran leku askotan  
jai zelebratzen deguna.

17/ Eskaritxo bat egiten dizut  
nik, santu maitagarriya,  
eta badakit onetsiko dula  
egin'iotan eskariya:  
mundu guziyan zabaldu zazu  
bedeinkaziyo ugariya,  
nola zeran zu gaitz ta pestien  
defensoretzat jarriya,  
zeure eskutik gorde zazula  
betiko Euskal-erriya!



18/ Gesalaga'tar Juan Bautista,  
izena det eskusatu,  
orra emezortzigarren bertsua  
bukatzerako osatu,  
esan det San Rokek mundua  
noletan zuan pasatu;  
santu aundiya, azken orduan  
neri eskua luzatu,  
eternidadian gero zurekin  
nai det zeruan gozatu. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

## BERTSO BERRIAK

(CODORNIZ'EKO SOZIOAI)

Juan Bautistaren etxearen azpiko aldean lagun-arte bat dago; *Codorniz* du izena. Ta Santa Barbara daukate zaindaritzat. Onen eguneko aparitara Juan Bautista gonbidatzen zuten urtero, bera baitzuten etxeko nagusia. Ondoren, bertsoak jarri zituan onek urte batean:

- 1/ *Codorniz*'eko soziuari  
jartzera nua bertsuak,  
neri onetan laguntzen badit  
Barbara errukitsuak;  
beti laguntza biarra dauka  
ni bezelako mantsuak,  
oso egoki ezpada ere  
jarriko ditut batzuak.

2/ Soziyo orrek beren patrona  
daukate Santa Barbara,  
imajiña bat eder askua  
bertan ipiñiya bara;  
gau eta egun ikusi dedin  
argiya diyote para,  
orlako fedia idukitzia  
biziro gauza ona'ra.

3/ Egun orretan afaritara  
dirate neri otsegin,  
berakin batera jan ta eran  
gustora gelditu nedin;  
Txikito ta Lazkano ere bai  
eta Basarri're berdin,  
orren bertsuak adituaz  
egondu giñan atsegin.

4/ Afari ortan gu bagiñaden  
ogei eta zazpi jale,  
badakizute nola geraden  
danok gauza onan zale;  
egun orretan naikua bazan  
eta guretzako bale,  
danori sabela betetzen  
saiatu zan *Pipe-Kale*.

5/ Pixka bat berdinu giñanian  
asi zan Basarri kantatzen,  
eta gañera lengo ipui  
zarrak ere kontatzen;  
zar eta berri ederki daki  
mingañez itza juntatzen,  
gizon atsegiña daukagu ori,  
askori zaie gustatzen.

6/ Pelotariya ere bagendun  
*Chiquito de Iraeta*,  
aurten txapeldun atera da,  
gizon pizkorra da eta;  
Lazkano bere lagun zuala  
Atano anaien kontra,  
Eibartikan ekarri dituzte  
naiko diru eta ondra.

7/ Ondo dakigu atzelariya  
ederra dala Lazkano,  
beti pelota aidoso bota,  
orrek jokatzen du sano;  
Txikito lagun artu eta  
jun ziñan Eibarreraño,  
andik txapela ekarri zuan,  
bejaundizuela, Mariano.

- 8/ Urtian beingo festa-eguna  
beti zelebratzen dute,  
beren patrona Santa Barbara  
bertan jarriya daukate;  
deboziyua idukitzia  
ezta iñorentzat kalte,  
opa dizuet segi orrela  
danok bizi zeaten arte.
- 9/ Egun alaia pasatu degu  
danok alkarren artian,  
okasiyorik ez degu izan,  
ibilli gera pakian;  
aurrera ere segi dezagun  
uniyo eder batian,  
ia onela juntatzen geran  
danok urrengo urtian.
- 10/ Eskerrak nere partetik Sozi-  
edade maitagarriya,  
osasanakin bizi dedilla  
beraren zuzendariya;  
Jaungoikuak eman dizutela  
naiko jan ta erariya,  
eta iltzian beti-betiko  
zeruetako gloriya. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

## BERTSO BERRITAN

### TXAKOLIÑAREN KONDIZIYUAK

- 1/ Denbora pasa jartzera nua  
zelebrekeriz bertsuak,  
esan biar det nola diraden  
txakoliñaren kasuak;  
atentziyua jarri zazute,  
seme eta gurasuak,  
kuidaduakin jiratutzeko  
botilla eta basuak,  
gero egin nai ezpeditugu  
alperrikako pausuak.
  
- 2/ Txakoliñaren kondiziyua  
nua garbi esatera,  
arrazoirikan ez det emango  
projimuaren kaltera;  
iñoiz edo bein abitzen bada  
txakolin au eratera,  
obiago du zenbat komeni  
zaion kontuak atera,  
edo bestela ondorenian  
gaizki ibilliko zera.

3/ Erari guztiz maitagarriya  
dala dakit txakoliña,  
baldin neurritz ibilli ezker  
alimentu atsegiña;  
kolore txuri-gorriya eta  
argi klarua ta fiña,  
kasikan illak piztutzen ditu  
zar eta gazte berdiña,  
matsaren zumo gozuarekin  
Euskal-erriyan egiña.

4/ Persona asko egoten dira  
osasunatikan debil,  
denbora junda, denbora etorri,  
sendatu eziñik dabil;  
orrelakuai konsejuxo bat  
eman biarrian nabil,  
segi dezala pixkabanaka  
alimentatutzen umil,  
denbora asko baño lenago  
ipiñiko zaitu abil.

5/ Txakolin onak izan biar du  
kanpo egutera aziya,  
lendabiziko orretarako  
Jaungoikuaren graziya;  
leku aidoso, albait sekua;  
berua nai dan guziya,  
egiten ondo tratatu eta  
ontzi onetan biziya,  
erari ori probatutzeko  
zeñek eztu kutiziya?

- 6/ Baña senire batzuek baditu  
orrek desgraziadamente,  
leku txarrian sortu dira-ta  
penarik asko badute;  
aize otza ta umedadia,  
euzki klarua aparte,  
an egoten dira eldu eziñik  
izotzak abitu arte,  
orrelakua zurruteruak  
laixter ezagutzen dute.
- 7/ Lendabiziko eraterakuan  
bildurrak asitzen dira,  
bigarrenari azkarxiago  
ematen diye segira;  
irugarrengo basua berriz  
akordatu gabe jira,  
laugarrena're aguro ustu,  
iñor ezpadao begira,  
ortik aurrera kuidaro gabe  
eskatzen abitzen dira.
- 8/ Txakolin ori kostunbratzen da  
eraten iru klasetan,  
leku batzuetan lendabiziko  
baraurikan goizetan;  
gure erriyan amar baxo  
saldutzen dira pezetan,  
ori jakinda zein ezta egongo  
au erateko pozetan,  
kuidaro gabe lo egiteko  
ondorenian aizetan?



- 9/ Orra nola kostunbratzen dan  
 beste paraje batian,  
 eguardiko amaikatatik  
 bazkariya bitartian:  
 basuak lasai jiratze'ituzte  
 jarririk lagun artian,  
 goizetik alai jarritzen dira  
 zerbait janaz tartian,  
 opa dizuet segi orrela  
 beste ogei bat urtian.
- 10/ Irugarrena udaran beintzat  
 danian bero aundiya,  
 espoja ere urai nastuta  
 deitzen diyote sangriya;  
 au eranaz ederki asko  
 kentzen dute egarriya,  
 barrua fresko, biotza alai,  
 argitzen zaie begi ya,  
 zenbat modutan enpliatzen dan  
 txakolin zoragarriya!
- 11/ Lagun bateri neronek niyon  
 lengo egunian aditu,  
 nola ziraden kuadrilla bat  
 txakoliña eraten abitu;  
 bata bestiai basua emanaz  
 gustora ziran aritu,  
 zenbat eranda gero geiago  
 engañatutzen baditu,  
 gizon galantak izanakgatik  
 azkar menderatzen ditu.

- 12/ Txakoliñak du gizonarentzat  
izugarrizko birtutia,  
aguro asko alegratzen du  
egonagatik tristia;  
lendabiziko jolastuko da,  
asmatuko du txistia,  
gero kantari abituko da,  
albotik parrez bestia,  
alare etzaio akordatutzen  
eratiari uzta.
- 13/ Baldin eraten segitzen badu  
gaiztotuko da umilla,  
salto ta brinko abituko da  
komediante abilla;  
zutikan ezin egon da eta  
dabil kontrariyo billa,  
eskandaluan maldiziyoka  
jasorikan ukabilla:  
“Gauza danikan baldin badago  
nigana erten dedilla!”
- 14/ Oraindikan e eran eiten du,  
basua ustu du traguan,  
etzaio asko akordatutzen  
zer estadutan dagan;  
mingaña ere toteldu zaio  
eztaki zer eiten duan,  
zilipurdika or erori da  
bola motz baten moduan,  
mobimenturik etzuan egin  
dozen erdi bat orduan.

15/ Asko bezela neroni ere  
nazu txakolin-zalia,  
iñoiz edo bein egin izan det  
izugarrizko pelia;  
baita berak eman ere  
merezi detan dalia,  
oso erraiz-ta deskuidatutzen  
uste gabe eralia,  
tabernariyak noletan bizi  
orlakuak ezpalia?

16/ Txakoliñakin oitutzen bada  
segituko du berian,  
osasan ona baldin badauka  
konserbatzeko irian;  
beste erari asko noletan  
kimikoz egiñak dian,  
asko xamar eran ezkeru  
jarriko zaitu aidian,  
urte asko pasa baño len  
beste munduko birian.

17/ Koziñeruak beren lanetako  
ona ezagutzen dute,  
arengatikan orrenbesteaño  
bera maitatutzen dute;  
jenero askori ori nastuta  
gustua ematen diyote,  
erari asko dirade onak,  
txakoliñak dauka parte,  
eztakianik iñon badago  
ematen diyotet parte.

18/ Emezortzigarren bertsuarekin  
nijua errematera,  
lan onetan ez naiz jardun  
iñoren kaltera;  
sentimentua artu duanik  
bat bakarrik ote'ra?  
utsegin badet barkatuzeko  
nijuakizu esatera,  
Gesalaga'tar Juan Bautistak  
orra bertsuak atera. (1)

---

(1) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi, S.I.: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA.
6. T. Alzaga: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI.
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BORDAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI.
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala, S.J.: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Goñi, S.I.: LURDESKO GERTAERAK.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.<sup>e</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.

29. *T. Alzaga*: BURRUNTZIYA.
30. *G. Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverriá*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala, S.J.*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.



1027941

JB-931

JB